



URDAIBAIKO BIOSFERA ERRESERBAKO INGURUGIROAREN INTERPRETAZIO, IKERKETA ETA HEZKUNTZARAKO ERABILERA EGITAMUA



**URDAIBAICO
BIOSFERA
ERRESERBAKO
INGURUGIROAREN
INTERPRETAZIO,
IKERKETA ETA
HEZKUNTZARAKO
ERABILERA
EGITAMUA**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LURRALDE ANTOLAMENDU,
ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO SAILA

DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN DEL
TERRITORIO, VIVIENDA Y MEDIO AMBIENTE

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 1997

Argitalpenen aurkibidera / Al índice de las publicaciones

Argitaraldia: 1.a, 1997ko abendua
Ale-kopurua: 1.500

© Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioa
Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Wellintongo Dukearen Kalea, 2 zk - 01010 Vitoria-Gasteiz

Fotokonposaketa: Rali S.A.
Particular de Costa 8-10 - 48010 Bilbao

Inprimaketa: Gráficas Santamaría S.A.
Becolarra 4 - 01010 Vitoria-Gasteiz

ISBN: 84-457-1180-6

L.G.: VI-536-97

Aurkibidea

	Orr.
Aurkezpena	7
1. Urdaibaiko Biosfera Erreserba	11
2. Erabilera Egitamua testuingurua	17
2.1. Ingurugiro heziketa gizartea dinamizatzeko prozesuetan	19
2.2. Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren diagnostiko orokorra	21
2.2.1. Ahuleziak	21
2.2.2. Mehatxuak	22
2.2.3. Sendotasunak	23
2.2.4. Aukerak	23
2.3. Lau jarduketa eremuen diagnostico berezia	24
2.3.1. Informazioaren eta zabalkundearen egoeraren diagnostikoa ..	24
2.3.2. Sektore bakoitzaren heziketa teknikoaren diagnostikoa	26
2.3.3. Ingurugiro heziketak ikastetxeetan duen egoeraren diagnostikoa	27
2.3.4. Ikerketa zientifikoaren diagnostikoa	29
2.4. Erabilera Egitamua Urdaibaiko Biosfera Erreserba Erabili eta Kudeatzeari buruzko Egitamu Gidarira egokitzea	31
3. Helburu nagusiak eta gomendioak	33
3.1. I. helburu nagusia	35
3.2. II. helburu nagusia	36
3.3. III. helburu nagusia	37
4. Programa osotuak	39
4.1. Sarrera	41
4.2. Oinarrizko baldintzak Erabilera Egitamua inplementatzeko	42
5. Informazio eta zabalkunderako programa	45
5.1. Sarrera	47
5.2. Helburu zehatzak	48

5.3.	Jarduteko irizpideak	48
5.4.	Jarduketen katalogoa	49
5.5.	Jarduketen deskripzioa	51
5.6.	Jarduketak ezartzeko gidalerroak	55
5.7.	Ebaluazio sistemak	56
6.	Sektoreen heziketa teknikorako programa	57
6.1.	Sarrera	59
6.2.	Helburu zehatzak	60
6.3.	Eragin beharreko sektore sozioekonomikoen araberako banaketa	60
6.3.1.	Sektore bakoitzaren Ingurugiro Heziketari buruzko proposamenen banakapena	61
6.4.	Jarduteko irizpideak	65
6.5.	Jarduketen katalogoa	65
6.6.	Jarduketen deskripzioa	65
6.7.	Jarduketak ezartzeko gidalerroak	67
6.8.	Ebaluazio sistemak	68
7.	Ikastetxeetako ingurugiro heziketarako programa	69
7.1.	Sarrera	71
7.2.	Helburu zehatzak	72
7.3.	Jarduteko irizpideak	72
7.4.	Jarduketen katalogoa	73
7.5.	Jarduketen deskripzioa	74
7.6.	Jarduketak ezartzeko gidalerroak	77
7.7.	Ebaluazio sistemak	78
8.	Ikerketa eta lankidetzaz zientifikorako programa	81
8.1.	Sarrera	83
8.2.	Helburu zehatzak	84
8.3.	Gai nagusiak	85
8.3.1.	Garatu beharreko arlo nagusiak eta lortu nahi diren helburuak	86
8.4.	Hasi eta garatu beharreko lanak	89
8.5.	Jarduketen katalogoa	94
8.6.	Jarduketen deskripzioa	94
8.7.	Jarduketak ezartzeko gidalerroak	96
8.8.	Ebaluazio sistemak	97

Aurkezpena

*Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Ingurugiro Interpretazio, Ikerketa eta Heziketarako Erabilera Egitamu hau*¹ *uztailaren 6ko 5/1989 Legeak (Urdaibaiko Biosfera Erreserba Babestu eta Antolatzeari buruzkoa) eta berori garatzeko tresna den Erabili eta Kudeatzeari buruzko Egitamu Gidariak ezarritakoaren arabera arautuko da.*

Hala ere, Egitamuaren oinarri teorikoak *Biosfera Erreserbetarako Sevillako Estrategian* sorturiko printzipioetatik hartu dira. Estrategia hori Biosfera Erreserbeei buruzko Nazioarteko Konferentzian (Sevilla) egin eta UNESCOren 28. Konferentzia Orokorrak berretsi zuen, 1995aren amaieran.

Urdaibaiko Biosfera Erreserba Erabili eta Kudeatzeari buruzko Egitamu Gidariaren helburu nagusienetariko bat kontutan hartuta - "Natur eta kultur ondarearen ingurugiro ikerketa, interpretazioa eta hezkuntza sustatzea"-, eta lurraldea nahiz biztanleria ebaluatu ondoren, Helburu Nagusi eta Zehatz batzuk ezarri dira giro egokia sortu eta, horrela, eskualdearen Kontserbazioa eta Garapena uztartzeko.

Baina jabetze mezuak igortzea eta eguneroko errealitatera nahiz beharrianetara lotu bako jarduketak egitea ez da nahikoa helburuok lortzeko. Aldiz, praktikak honexetan oinarritu beharko du: tokiko egileak lurraldearen kudeaketan inplikatzeko printzipioan. Beraz, komunikazio ildoak finkatu ondoren, parte hartzeko bideak ireki, biztanleen eta inguruaren arteko elkarrekintzak ondo ezagutzeko baldintzak hobetu eta, azkenik, oinarriak ezarriko dira tokiko agenteak ingurugiro arazoak gainditzen trebatzeko.

Horrela, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren dinamizazioa sustatuko da; horretarako, beharrezkoa izango da errealitatea ondo ezagutu, ingurugiro sentsibilizazioa lortu eta jarrera solidario eta konprometatua izatea, *Garapen Eutsigarria* bilatzean. Horrek aukera emango du tokiko biztanleriaren bizitza kalitatea bermatzeko moduko etorkizuna eraikitzeko; etorkizun horretan, gainera, hurrengo belaunaldiek oso-osorik aurkituko dute ingurunearen natur eta kultur ondarea, eta horixe izango da euren lekatua.

¹ 1997ko urtarrilaren 22an Urdaibairen Patronatoak onartua.

1. Urdaibaiko Biosfera Erreserba

1984ko abenduan, UNESCOren (Hezkuntza, Zientzia eta Kulturako Nazio Batuen Erakundea) MaB Programa (Gizakia eta Biosfera) Koordinatzen duen Nazioarteko Kontseiluak, Biosfera Erreserba izendatu zuen Urdaibaiko lurraldea. Urdaibaiko Biosfera, horrela, Biosfera Erreserben Nazioarteko Sarean sartu zen. Sare hori M.a.B. Programaren barruan dago eta beraren helburua natura artatzea nahiz gizartearen zerbitzurako ikerketa zientifikoak egitea da.

Nazioarteko aintzatespen honek harrera ona izan zuen bertako erakunde eta er-kidegoetan; baina UNESCOk Urdaibai Biosfera Erreserba izendatzeak praktikan ez zekarren legezko estaldurarik bertako baloreak (natur, gizarte eta kultur mailakoak) babesteko. Beraz, administrazioak Urdaibai lege araubide berezi batez zuzkitzeko erantzukizuna zuen.

Horretarako, Eusko Jaurlaritzak *5/1989 Legea, Urdaibaiko Biosfera Erreserba Babestu eta Antolatzeari buruzkoa*, onetsi zuen (145 zenbakidun EHAA, 1989ko uz-tailaren 29koa); horrela, araubide juridiko berezia ezarri zuen bertako ekosistema guztiak babestu eta suspertzeko, ondokoa oinarri izanda: “natura, zientzia, hezkuntza, kultura, josteta eta sozioekonomiaren aldetik duen interesa”. Urdaibaiko Biosfera Erreserbari buruzko Legeak ez ditu kontserbazio egoera oneko guneak bakarrik babesten, tresna eta neurri zehatz batzuk ere lantzen ditu eskualde osoaren garapen eutsigarrirako: lurraldearen antolamendua zein ingurugiro kudeaketa Erabili eta Kudeatzeari buruzko Egitamu Gidariaren (EKEG) bidez, Jarduera Sozioekonomikoak Bateratu eta Garatzeko Programa, bestalde, bertako biztanleen partaidetza bermatzeko Patronatua eta, gainera, Zuzendari-Artatzailea dinamizatzaile lanetarako.

Erabili eta Kudeatzeari buruzko Egitamu Gidaria (EKEG) Gobernu Kontseiluak onetsi zuen 1993ko abuztuaren 3an (235 zenbakidun EHAA, 1993ko abenduaren 7koa). Egitamu horrek Urdaibaiko Biosfera Erreserbarako ezarri dituen 8 helburu nagusietatik, hauxe azpimarratu behar da, estu lotuta baitago Erabilera Egitamu hone-

tara: “Natur eta kultur ondarearen ingurugiro ikerketa, interpretazioa eta heziketa sustatzea”.

Jarduera Sozioekonomikoak Bateratu eta Garatzeko Programa, Urdaibaiko 5/1989 Legeak ezartzen duenez, sektoreen araberrako egitamuen bidez garatuko da. Egitanu horiek ondokoa lortzeko zehaztapenak edukiko dituzte besteak beste: “Erreserbako jarduera didaktikoak antolatzea, bisitarien gozamina handitzeko eta euron ingurugiro heziketa sustatzeko”.

Bestalde, Urdaibairen kudeaketan gizarte agenteen partehartzea hobetzeko, Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak *Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Lankidetzak Kontseilua* sortu zuen otsailaren 14ko 164/1995 Aginduaren bidez. Kontseilu horren barruan, Urdaibaiko jabe nahiz auzotarren interesak defendatzeko eta natura ikertzeko edo babesteko estatutuak dituzten erakundeak daude; halaber, gizarte, ekonomi eta kultur sektoreen erakunde ordezkariak, euren jarduera Urdabaien burutzen dutenak alegia, horiek ere Kontseiluaren barruan daude.

Amaitzeko, lehen esan bezala, 1995eko martxoan Biosfera Erreserbei buruzko Nazioarteko Konferentzia egin zen Sevillan, eta bertan garrantzi handiko agiri bi sortu zirelarik: *Biosfera Erreserben Munduko Sarearen Estatutuak* eta *Sevillako Estrategia* izeneko Ekintza Egitanu berria. Bi agiri horiek berretsita gelditu ziren UNESCOren 28. Konferentzia Nagusian (Parisen egin zen, 1995ko urrian eta azaroan).

Estatutuetan adierazten denez, Biosfera Erreserbek Kontserbazioa, Garapena eta Laguntza logistikoa konbinatzen dituzte, eta leku bikainak dira kontserbaziorako eta garapen eutsigarriarako metodoak entseiatu eta frogatzeko eskualdeka. Gainera, komenigarria izango litzateke agintari eskudunek ingurugiroari eta giza baliabideen garapenari buruzko hezkuntza nahiz gaitasuna sustatzea, Sare barruko beste Biosfera Erreserba batzuekin lankidetzan.

Bestalde, *Sevillako Estrategiak* bere III. Helburu Nagusian dioenez, beharrezkoa da “Biosfera Erreserbak erabiltzea ikerketarako, behaketa iraunkorrerako, hezkuntzarako eta trebakuntzarako”. Horretarako, berriz, ondoko helburu zehatzak proposatzen dira:

- Gizakiaren eta biosferaren arteko elkarrekintzak hobeto ezagutzea.
- Behaketa iraunkorreko jarduketak hobetzea.
- Heziketa, kontzientziazioa eta partaidetza sustatzea.
- Espezialista eta administratzaileen prestakuntza hobetzea.

Konferentzian goiko helburuak gauzatzeko sortu ziren gidalerroen artean, ondokoak aipa daitezke (Sevillako Estrategia berriaren oinarriak dira):

- Ikerketa zientifikoa, behaketa iraunkorra, trebakuntza eta hezkuntza areagotzea Biosfera Erreserbetan. Izan ere, alde horietako baliabide naturalak kon-

tserbatu eta ustiatzeko, natur eta gizarte zientziei buruzko oinarri sendoak behar dira.

- Biosfera Erreserbetako alde guztiek kontserbazioa, garapen eutsigarria eta ezagutza zientifikoa bultzatuko dutela segurtatzea.
- Egile eta sektore interesatu guztiak biltzea, Biosfera Erreserbak eskualde bakoitzean nahiz sareetan sustatzeko. Informazioa oztoporik gabe zabaltzea behar da inplikaturiko alderdien artean.
- Inbertsioak egitea etorkizunerako. Biosfera Erreserbak gizateriaren eta inguru naturalaren arteko harremanei buruz dakiguna osatzeko erabili behar dira. Horretarako, zabalkunde, informazio eta hezkuntza programak egin behar dira, epe luzera eta hurrengo belaunaldiak kontutan hartuz.

2. Erabilera Egitamuaren testuingurua

2.1. Ingurugiro heziketa gizartea dinamizatzekeo prozesuetan

Historian zehar ibilbidetxo bat eginez gero (gizarteak orokorrean gizakia eta ingurunearen arteko harremanei buruz izandako kontzeptua zein izan den jakiteko), hiru fase nagusi aipatuko genituzke. Fase bakoitzean, ingurugiro heziketaren ikuspegi aldatzen joan da, helburuei eta metodologiari dagokienez; baina heziketa horren xedea beti izan da bat: biosferako harremanen sistema nahasian, gizakiok espezieztat (beste espezie askorekin elkarrekintzan dagoen espezieztat) dugun zereginaz jabetzea.

Hasieran uste zenaren arabera, giza jarduerak aurka egiten zion planetan bizi ziren gainerako espezieen biziraupenari. Borroka honetan, naturguneak, galtzear zeuden espezieak eta abar babesteko politikak, mehatxutzat ikusten zituen giza jarduera guztiak; beraz, ekosistemak, basoak edo espezieak jarduera horretatik babestu beharra zegoen. Planteamendu horiek biosferatik kanpo uzten zuten gehienetan gizakia. Ingurugiro Heziketak, egoera horri erantzuteko, espezie horien balioa, eurak ezagutu zein zaindu beharra eta abar nabarmentzen zituen, eta ez zuen zalantzan jartzen gizakiaren jarduera bera.

Ingurugiro arazoaz jabetzeko prozesu honetan aipa daitekeen hurrengo epealdian, gizakia biosfera kontzeptuaren barruan kokatzen da; gainera, aitortu egiten da gizakiaren jarduerak ingurugiroan sorturiko degradazio prozesuak eragina duela gure espeziean bertan ere, gure habitata degradatzen ari baita astiro-astiro. Egoera horri erantzuteko, Ingurugiro Heziketak gure espezieak eragindako prozesuak erakusten ditu; halaber, agerian jartzen du arindu beharra dagoela gure jarduerak ingurunean duen eragina (kutsadura murriztu, baso galerak gelditu, baliabideak kontserbatu...).

Gaur egun, beste pauso bat eman da. Gizartea, berorren zati bat behintzat, zailentzen ari da (lehengo fase bietan azaldutako aurrerakada onartuta ere) oraingo garapen eredua. Gure espezieak erabiltzen dituen planetako baliabiderik gehienak (beste espezie batzuen baliabideak ere geuk erabiltzen ditugu), eta baliabideok agortzen ari dira, eurok ustiatzeko eraren eraginez. Orain arazoa ez da espezie edo ekosistema jakinen bat babestea bakarrik, ezta gure jarduerak sorturiko eragina saihestea ere. Arazoa hau da: daukagun gizarte eredua “eustezina” dela, hau da, eredu horri ezin zaiola luzaroan eutsi. Beraz, hautabidezko ereduren bat bilatu behar da. Gizakia desagertu egin daiteke biosferatik, mendebaldeko gizartearen garapen ereduari eutsiz gero. Egoera berri hori ikusita, Ingurugiro Heziketa erronka horri aurre egiten ari da, ikuspegi berriak garatuta metodologiaren aldetik.

Erabilera Egitamua hau Ingurugiro Heziketan egindako planteamendu aldaketaren ondorioa da. Beraren helburu nagusietariko biztanleek lurraldearen kudeaketan parte hartzea da; horretarako, informazio sistemak hobetu, ohituren aldaketa sustatu, materialak eskaini edota biztanleon partaidetza areagotuko da.

Herri administrazio batek Urdaibaiko Biosfera Erreserbakoa bezalako edozein proiektu garatzen duenean (ekonomi garapena eta lurraldeko ekosistema multzoaren kontserbazioa bateratzeko), sarritan interesen gatazka bat sortzen da biztanleen, bisitarien eta administrazioaren artean. Gatazkaren alderik gogorrena tokiko biztanleen eta administrazioaren artean sortzen da, bakoitzak uste baitu bestearen helburuak eta norberarenak aurkakoak direla.

Bertako biztanleak administrazioaren eskuhartzearen aurka egoteko arrazoen artean, ondokoak aipa daitezke:

- erabaki-guneak (administrazioa) neurriak betearazteko lekuetatik (lurraldea) bananduta egotea,
- epe laburrerako interesak nagusitzea,
- biztanleek informaziorik ez izatea,
- partehartze urria izatea erabakiak hartzean.

Biztanleak lurraldearen kudeaketan inplikatzeko helburu horrek Ingurugiro Heziketaren orain arteko mugak gainditzea dakar, eta helburu orokorrago batzuk onartzea, esate baterako, biztanleen gizarte dinamizazioa lurraldean. Horretarako, metodologia berriak erabili behar dira, gizarte komunikazioaren nahiz marketing ekologikoaren teknikak teknika pedagogikoekin konbinatuta, eta gizarte agenteak prozesuaren elementu nagusitzat aurkeztuta.

Testuinguru horretan, Ingurugiro Heziketa ekonomi zein gizarte eremuetako beste edozein elementuren kategoriarekin sartu behar da lurraldearen kudeaketan; kontutan izan behar da, lurralderako sortu diren programa eta egitamuek arrakasta izate-

ko, beharrezkoa dela adostasuna lortzea inplikaturiko biztanleekin. Horretarako, biztanleok proiektua ezagutu, berorren balorazio ona egin eta, azken batean, inplikatu egin beharko dira.

2.2. Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren diagnostiko orokorra

Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren ebaluazioa gizarte agenteek eta bertako biztanleek emandako iritzien arabera egin da. Aplikaturiko metodologiak (DAFO sistema), definizio eta ebaluazio prozesu baten ostean, lau kategoriatan sailkatu ditu igorritako ideia eta mezuak: ahuleziak, mehatxuak, sendotasunak eta aukerak.

«Ahuleziak» zenbait kritika eragiten duten neurri edo egoerak dira, nahitaez konpondu beharrekoak. Orain arteko arazo berri ematen digute, horiei aurre egin ahal izateko.

«Mehatxuak» proiektua deusezta dezaketen arazo larriak dira. Konpondu beharreko elementuak izan daitezke, edota zenbait egoera larri, biztanleak biltzea eragiten dutenak helburu komunen bat lortzeko.

«Sendotasunak» gizartearen sektore guztien onospena eragiten duten egintza edo ekintzak dira. Ematen diren mezuek sendotasunotan euskarritu beharko dute, halako sendotasunak sektoreen arteko konbergentzi guneak dira eta.

«Aukerak» (sendotasunak bezala) jarduketa eremuak ezartzea ahalbidetzen dute, gizarte sektoreek (batzuek behintzat) ondo hartuko dituzten gaitan.

Lau kategoria horiei dagokienez, Erabilera Egitamua aukerak probetxatu, ahuleziak ezabatu, mehatxuak urritu eta sendotasunak areagotu beharko ditu.

Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren diagnostiko orokorra hauxe da:

2.2.1. Ahuleziak

Orain arte aurkituriko ahuleziak maila guztietan dagoen informazio ezak eragin ditu. Hiritarrek, gizarte agenteen ordezkariak edo toki erakundeen kudeatzaileak ez dakite ondo Urdaibai zer dela-eta izendatu duten Biosfera Erreserba; horrek izan ditzakeen ondorioak ere ez dituzte ezagutzen. Halaber, ez dakite zeintzuk diren 5/1989 Legearen eta berori garatzen duen araudiaren edukinak. Ondorioz, Urdaibairen irudi murriztailea sortu da; iritzirik errotuenaren arabera, Urdaibairen naturaren kontserbazioa gausitzen da, bertako biztanleen eskubide eta bizi baldintzen kaltetan.

Gainera, bertako erakundeek ez dute parterik hartu erabaki nagusietan (5/1989 Legea eta Erabili eta Kudeatzeari buruzko Egitamu Gidaria), eta horrek mesfidantza egoera eragin du gauza ezezagun eta arrotzei dagokienez.

Bestalde, Patronatuak ez du irudi trinko eta integrazailerik eskaini Urdaibaiko biztanle eta udalerrien interesei buruz; ondorioz, sinesgarritasuna eta agerpena galdu du biztanleen artean.

Beste maila batean, gizartean erroturiko irudi korporatibo baten hutsunea nabaritzen da; irudi hori Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Patronatuko jarduketan erreferentea izan daiteke. Gainera, oraingo jarduera, material eta ekipamenduak ez dira nahikoak ingurugiro zabalkunde, sentsibilizazio eta heziketarako.

Azkenik, balorazio txarra egiten zaio zientzian eta eskoletan dagoen koordinazio ezari. Izan ere, jarduera oso bizia badute ere, euren ezagutzak ez dira gizartera iristen; edo, irakasleen kasuan, ez dago jarduketa eremu bateraturik ingurugiro heziketaren arloan.

2.2.2. Mehatxuak

Arriskua dago erakundeen arteko akordiorik ezak Urdaibaiko proiektua geldiarazteko eta, ondorioz, Patronatuaren jarduera honexetara mugatzeko: Erabili eta Kudeatzeari buruzko Egitamu Gidaria arautzen duten zehaztapenak gainbegiratzea. Horrek areagotu egingo luke landaguneko herritarren ezespena eta mesfidantza.

Balorazio txarra egiten zaio Jarduera Sozioekonomikoak Bateratu eta Garatzeko Programa oraindik egiteko egoteari. Izan ere, abelur jardueraren etorkizunean dagoen ziurgabetasuna eta industri sektorearen krisialdia ikusita, sektore batzuetan tertziarizazio gogorraren arriskua aurreikusten da; horrek, batetik, baserriko produkzio sektorearen hondamena ekarriko luke eta, bestetik, beste zenbait ondorio txar (azpiegitura handiak, urbanizazioak, etab.), turismo jendetsua areagotzearen ondorioz. Urdaibaiko proiektuaren erronka estu lotuta dago 5/1989 Legearen jarduketa eremuan ikuskaturiko panorama sozioekonomikora eta EKEGaren garapen osora.

Urdaibaiko araudiaren aplikazioak gizarteak nabaritzeko moduko islada izan behar du aurrekontuetan; izan ere, kontserbazio neurri nagusiak ikusten badira ere, ez dira nabaritzen eskualdearen garapen orekatua ahalbidetzen duten ekonomi zuzkidura bereziak. Horri dagokionez, lehentasuna ematen zaio Patronatuko administrazioek elkarrekin lan egiteari.

Beste mehatxu bat biztanleriaren sektore batzuk agian prozesutik baztertuta gelditzean datza; eta baztertuta geldi daitezke parte hartzeko biderik ez dutelako edota

Urdaibaiko eremuaren ikuskera partziala dutelako; horrek, berriz, biztanleriaren zati baten geldotasuna eta nahastea ekarriko luke.

2.2.3. Sendotasunak

Urdaibairen barruan natur, kultur eta giza balore bikainak daude; bertako biztanleek aintzat hartzen dituzte baloreok eta, ondorioz, oso lotuta daude lurraldera.

Bertako gizarte agente ugariak partaidetza aktiboa izan nahi dute, Patronatuarekin batera, Urdaibairen kudeaketan. Jarrera hori oso ona da Erabilera Egitamu honi dagokionez; izan ere, bertan planteaturiko jarduera asko burutzeko, beharrezkoa da tokiko taldeek partehartze handia izatea.

2.2.4. Aukerak

Urdaibaiko landa-ingurunea (Euskal Herriko landazabal atlantikoaren ohiko paisajea dauka) bertako biztanleen jarduerari esker dago bizirik. Baliabide naturalak bertiko eran erabiltzea baliabide itzela da, oraindik ere, zientzia eta heziketaren aldetik; izan ere, Biosfera Erreserbaren baserri-inguruko protagonista nagusien lekukotza zuzena ere hortxe dugu. Gainera, ekosistemen aniztasunak eta lurraldearen erabilerek berebiziko eremua eskaintzen dute ingurune ikerketa eta heziketarako.

Urdaibairen balore interesgarrienetarikoak gizakiaren eta naturaren arteko lotura da. Lurralde osoan gizon-emakumeak bizi direnez, *in situ* ikus daiteke kontserbazioaren eta garapenaren arteko lotura.

Gainera, Urdaibaik baliabide ugari ditu kulturen eta ekologian oinarrituriko turismoa garatzeko; horri kanpoan duen irudi ona gehitzen badiogu, bultzada handia eman ahal zaie bertako baloreen zabalkundeari, turismo eskaintzaren bereizketari eta lurraldetik hurbilago dagoen errealitatea proiektatzeari.

Biosfera Erreserbaren barruan intelektual multzo handia dago (ikertzaileak, irakasleak, artistak, kudeatzaileak, etab.), baita ekipamendu (eskolak, museoak, ikerketa guneak, etab.) nahiz zerbitzu (bertako prentsa, irratiak, etab.) zuzkidura handia ere. Horiek, Erabilera Egitamu honetan integratu ondoren, sakada itzela eman ahal diete egin nahi diren jarduketara neurriek.

Bertako biztanleak ondo jabetuta daude eguneroko ingurugiro arazoez (saneamendua, hiriko hondakinen kudeaketa edo ingurune naturalaren degradazioa). Hortaz, ingurugiro hezkuntza beharrezko tresna da lurraldearen kudeaketan eta, horrenbestez, agenteek berorren garapen osoaren alde egiten dute.

2.3. Lau jarduketa eremuen diagnostico berezia

2.3.1. Informazioaren eta zabalkundearen egoeraren diagnostikoa

2.3.1.1. *Urdaibaiko Biosfera Erreserban inplikaturiko gizarte agenteen diagnostikoa*

Urdaibai eskualde oso anitza da: banaketa sozioekonomikoa dago barrualdeko hiri-guneen, baserri ezarkuntzen eta kostaldeko enklabeen artean. Gizarte agenteek hiri-guneetan (Gernika eta Bermeo) egiten dituzte jarduerarik gehienak.

Sektore guztiak ondo ordezkaturik daude, nahiz eta lehen sektoreak protagonismo berezia izan eskualdean. Bestalde, zelanbaiteko artegatasuna eta elkartu beharra nabaritzen da baserriaren eta arrantzaleen artean.

Talde kulturalak asko eta oso aktiboak dira.

Komunikabide ugari dago eta horiek lurraldean bertan nahiz eskualde osoan jarduten dute.

Urdaibaiko Biosfera Erreserban Ingurugiro Heziketan diharduen sektorea oso adierazgarria da; izan ere, 35 pertsona inguru Ingurugiro Heziketan bakarrik ari dira, bertako ekipamendu ugarietan.

Ingurugiro mugimendua ondo ordezkaturik dago Urdaibaiko Biosfera Erreserban. 5 ingurugiro talde daude Txepetxa Plataforma ekologistan bilduta, eta beste elkarte orokorrago batzuk ere lanean dabiltza Urdaibaian.

2.3.1.2. *Bertako informazio sistemen diagnostikoa*

Patronatuak oraindik ez dauka informaziorako azpiegiturarik. Zerbitzu berezia behar da gizartearen dinamizatzeko eta jendeari informazioa emateko, Patronatuaren oraingo jardueraren nagusiak administrazio arlokoak bakarrik baitira.

Urdaibaiko biztanleek garrantzi handia ematen diote toki zein eskualde mailako informazioari.

Komunikazio-gune nagusiak Gernika eta Bermeo dira, bertan sortu eta zabaltzen baita informaziorik gehien.

Produktzio sektoreak komunikazio organo oso dinamikoak dira, arrantza sektorea batez ere (arrantzaleen kofradietan bilduta dago). Bermeoren kasuan, herria lehen

sektorearen (arrantza) menpe dagoenez, arrantzari loturiko gremioak (kofradiak) oso dinamikoak dira eta jendeak guztiz errespetatzen ditu.

Tokiko irratia partehartzeko eta komunikaziorako bide egokiak dira gizarte agenteentzat.

Herrialdeko komunikabideek (prentsa idatzia) zenbait atal dituzte eskualdeari buruz, eta tokiko biztanleek guztiz atsegin dituzte.

Gizarte agenteek gehien erabiltzen dituzten oinarrizko komunikabideen artean, kartelak aipatu behar dira; kartelak taberna, kafetegi eta halakoetan ipintzen dira batez ere. Alderdi hori kontutan izan behar da mezuak aztertzean.

Komunikabideetan, lurraldea ez da beti berba zehatz batekin (Biosfera Erreserba) identifikatzen; izan ere, zehatza ez denez gero (parke naturala, Erreserba naturala, etab.), igorritako mezuak edukia galtzen du. Beraz, mezu hori zehaztu beharra dago, informatzaileek Urdaibairi buruz dakitena (gehienetan ez dakite ezer zehatzik) bateratuta agertzeko.

2.3.1.3. Informazio eta zabalkunde baliabideen diagnostikoa

Urdaibaiko Biosfera Erreserbak eta bertako Patronatuak, ez dute marka edo nor-tasun korporatibo bateraturik sortu euren jarduera guztien erreferente izateko, edota bertako biztanleek nahiz lurraldearen erabiltzaileek ezagutzeko.

Gaur egun zabalkunde-materialak, kalitate handikoak izanik ere, ez dira nahikoak.

Zabalkunde-materialek ez dituzte argi eta garbi isladatzen gizarte agenteekin berba eginda sumatzen diren arazoak.

Gizarte agenteak ez dira behar bezala erabili Urdaibaiko Biosfera Erreserbari buruzko informazioa zabaltzeko.

Ez dago desberdintasunik bisitariak informatzeko prestatutako materialaren eta bertako biztanleentzat prestatutakoaren artean.

Telebistan, prentsan eta irratian egindako kanpainak (Biosfera Erreserba kontzeptuaren inguruan egindakoak) ez dute eragin nahikorik izan jendearengan.

Informazioa lortzeko, bisitariak Gernika, Bermeo eta Mundakako Informazio eta Turismo bulegoetara jotzen dute batez ere. Izan ere, zerbitzuok lurraldera datozen turistek erabiltzen dituzte gehienbat, eta urtaroko izaera nabarmena dute: bisitaririk gehienak ekainean, uztailean eta abuztuan iristen dira.

Bulego horietan Euskadiko eskualde guztiei buruzko liburuskak eskaintzen dira. Baina, paradoxa hutsa dirudien arren, Urdaibaiko Biosfera Erreserbari buruzkoa bari-rik osterantzekoa da bertan eskainitako informaziorik gehiena. Nolanahi ere, udalerrri mailakoak izanik, bakoitzak bere herriari buruzko liburuskak eta informazioa eskaintzen du batez ere.

Turismo bulegoek era guztietako informazioa banatzen dute alde bakoitza hobeto ezagutzeko. Izan ere, aspaldion Urdaibairi buruzko mapak eta liburuskak ere banatzen dituzte, eta gero eta material gehiago eskatzen ari dira.

Ez dago Urdaibairi loturiko produkturik merkaturatzeko eta inguruko zentroetan saltzeko (landaturismoak, turismo bulegoak, oroigarri dendak, etab.); beraz, bisitariak ezin du alde horri buruzko materialik eskuratu bisitaldia gogoratzeko.

Udetxeako Jauregian erakusketa tematikoak egiten dira lantzean behin; baina bisitariak ezin dute ekipamendu iraunkorrik eskuratu natura interpretatzeko.

Errepide ondoetako seinaleak (zeramikazko hormirudiak —Urdaibaiko mapa—) lurraldearen panoramika orokorra eskaintzen diete bisitariak.

Bisitariak ez du informazio-gunerik une bakoitzean Biosfera Erreseerbako zein tokitan dagoen jakiteko; ondorioz, inguruko beste zenbait lekutan egonda ere, sarritan uste izaten du Urdaibaian dagoela. Beraz, seinaleztapen orokorreko egitumua behar da.

2.3.2. Sektore bakoitzaren heziketa teknikoaren diagnostikoa

Gaur egun ez dago heziketan diharduen erakunderik; horrenbestez, plangintzarik ere ez dago, Biosfera Erreserbaren eremuan orain arte diseinaturiko ingurugiro heziketako ekintzetan.

Ingurugiro prestakuntzako jarduerak gutxi eta zehatzak izan dira.

Orain arte egindako prestakuntza jarduerarik gehienak sektore oso zehatzetara zuzenduta egon dira: irakaskuntza, administrazioa eta baserritarrak.

Gizarte agenteek diote prestakuntza jardueren dinamizatzaile onak direla eta, beraz, euren lankidetzeta eta ekimena beharrezkoa dela.

Erreziklapena eta bilketa selektiboa izan da prestakuntza jardueretan landutako gai nagusienetarikoa.

Biosfera Erreserbaren eremuan garaturiko prestakuntza jarduerak, batik bat, mintegiak eta jardunaldi zehatzak izan dira; iraupen eta jarraipen handiagoa behar dutenak gehiago badira ere.

Eskualdean garaturiko ingurugiro prestakuntza jarduerarik gehienak azken 5 urteotan burutu dira.

2.3.3. Ingurugiro heziketak ikastetxeetan duen egoeraren diagnostikoa

2.3.3.1 Biosfera Erreserbako irakasleak

Ingurugiro Heziketako jarduerak laurogeiko hamarkadan hasi ziren Urdaibaiko ikastetxeetan, baina irakasle gutxi batzuek baino ez zuten parterik hartzen. Hala ere, aspaldion Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren baloreak (ingurugiro nahiz kultur mailakoak) irakasteko interes gero eta handiagoa nabaritzen da irakasleengan. Faktore hori kontutan izan beharko da Erabilera Egitamu honen gidalerroak garatzean.

Irakasleek Ingurugiro Heziketaren arloan egindako jarduerak ez dute ikastetxeen arteko koordinazio eta plangintzarik. Beraz, ez dago jarduerok ebaluatzeko programa edo mekanismo orokorrik, are gutxiago eskualde mailan. Ez da batere ezaguna jarduera horiek hezkuntzan duten eraginkortasuna.

Ikastetxeetan egiten diren Ingurugiro Heziketari buruzko ekimenak irakasle gutxi batzuen jarreraren ondorio dira. Jarduera horiek ez dute behar bezalako koordinaziorik irakasleen artean (irakasleok Zientzien arlokoak dira gehienbat). Horrek agerian jartzen duenez, irakaslerik gehienek uste dute Ingurugiro Heziketak lotura estuagoa duela naturarekin ondoko ingurunearekin baino: ingurugiroarekin, baloreekin eta ikasleen garapen orokorrarekin.

Irakasleak ez daude ondo trebatuta Ingurugiro Heziketan. Bistan da horrek baldintzatu egiten dituela Ingurugiro Heziketan egin beharreko jarduerak; izan ere, ez da jarduera handizalerik planteatzen, jarduera erraz, zehatz eta koordinaziorik bakoak baino. Sarritan, irakasleek eurek ere ikasi egiten dute ikastetxetik kanpoko ekipamenduak erabiliz egindako jarduerekin, Ingurugiro Heziketako jarduerekin alegia. Egin-eginean ere, irakasleak ikasleek eurek baino partehartze handiagoa dauka jarduerotan. Hauexek dira, besteak beste, irakasleen hezkuntzari oztopoak jartzen dizkioten faktoreak: hezkuntza ikastaroak eskola orduetan egin ezin izatea, motibazio eza, irakasleen hizkuntz birziklapena eta ikastetxeen aurrekontu eza. Nolanahi ere, Ingurugiro Heziketari loturiko ekimenik gehienak hezkuntza sistematik kanpo sortzen dira.

Ingurugiroarekiko Irakasbideen Hezkuntza eta Ikerketarako Ikastegia (IIHII/CEI-DA) *Ihiza* izeneko argitalpena irakasleei zuzenduta dago eta heziketa tresna interesgarria da Ingurugiro Heziketako jarduerak dinamizatzeko. Hala ere, lurraldeko irakasleek ez dituzte nahiko erabiltzen zentro horiek eta bertako baliabideak.

Hezkuntza erreforma ez da ondo errotu irakasleen baitan, eta oraindik ez dakigu zelako eragingarritasuna izan dezakeen. Agerian dago Ingurugiroaren Esperimentazio eta Ikerketa Didaktikorako Zentrorik ez egotea (Biosfera Erreserbaren eremuari laguntzeko) faktore erabakigarria izan dela horretan.

Hezkuntza eremuan irakasleei buruz egindako balorazioan, motibazio eta bitartekorik ez egotea nabarmentzen da, salbuespenak salbuespen, Ingurugiro Heziketari loturiko jarduerak egiteari dagokionez.

Ingurugiro Heziketari loturiko taldeek eta gizarte agenteek zenbait lan egin dituzte, baina horiek oraindik ez zaizkio behar bezala jendeari helarazi. Beraz, material didaktiko gaurkotu eta kalitatezkoak behar dira, Urdaibaiko Biosfera Erreserbari buruz.

2.3.3.2. *Urdaibaiko Biosfera Erreserbako ikasleak*

Ikaslerik gehienak ingurugiro jarduerak egitearen aldekoak dira eta esaten dute halako jarduera gehiago egin beharko liratekeela. Horrek, *a priori* behintzat, aditzera ematen du ikasleek irakasleek baino motibazio handiagoa dutela Ingurugiro Heziketako jarduerak egiteko.

Agerian dago ikasleek ez dituztela Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren kontzeptua eta lurraldea ezagutzen.

Berari buruz zeozer entzun dutenek naturari lotuta aurkezten dute beti Urdaibai. Izan ere, gehienek ekologi taldeekin lotzen dute Biosfera Erreserba izena.

Urdaibaiko Biosfera Erreserbari buruz ikasleek eta irakasleek jaso duten oinarritzko mezua ondoko berbetan oinarritzen da: kontserbazioa, babesa eta murrizketa.

Biosfera erreserbari buruz jasotako informazioa komunikabideetatik edota talde zehatzen batetik datorkie batik bat. Gutxi entzun dute ezer ikastetxean Biosfera Erreserbari buruz.

Ikasleek nolabaiteko sentikortasuna dute ingurugiro arazoekin. Hala ere, ez dute uste euren partaidetzak horiek konpontzen lagun dezakeenik. Hori dela eta, beste pertsona batzuei uzten diete erantzukizuna, talde ekologistei batez ere.

D eredia —euskara hutsezkoa— nagusi da, Lehen Hezkuntzan batik bat.

2.3.3.3. *Irakaskuntzari loturiko gizarte agenteak*

Sindikatuak eta Ikasleen Guraso Elkarteak, ez dute uste ingurugiro arazoak euren interes eta jardueren zati direnik.

Baseri-eskolek eta Ingurugiro Hezkuntzari loturiko gainerako taldeek hobeto ezagutzen dute izendapenaren prozesu osoa, baita lurraldeak natura eta kulturaren aldetik dituen baloreak ere. Dena den, eta salbuespenak salbuespen, hori ez da isla-

datzen euren jardueretan. Gizarte sektore horren iritziz, ez dago behar beste egitura-rik eta, gainera, Erabili eta Kudeatzeari buruzko Egitamu Gidaria ez dago ondo garatuta.

2.3.3.4. Biosfera Erreserban Ingurugiro Heziketari loturiko Ekipamenduak

Biosfera Erreserban ekipamendu asko eta era anitzekoak daude, baina inguru naturala interpretatzeko zentro bat behar da.

Ondoen ordezkaturiko ekipamendua baserri-eskola da eta, beraz, hezkuntza zerbitzu horren eskaria ondo beteta dago umeentzat.

Ingurugiro Heziketari loturiko talde batzuek hutsune handiak dituzte euren jardueretarako behar dituzten ekipamenduei dagokienez (lokalak, interpretazio elementuak, material didaktikoak, etab.).

Urdaibaien Ingurugiro Hezkuntzari lotuta dauden ekipamendurik gehienak kanpoko jendearekin dabilta, bai eskola mailan eta bai jende nagusiarekin.

2.3.4. Ikerketa zientifikoaren diagnostikoa

Biosfera Erreserban garapenik handiena duten jardueren artean, oinarrizko ikerketa dago. Izan ere, ikerketa horretan ezagutza maila garrantzitsua lortzen da; sarritan, ordea, ezagutza hori oso sakabanatuta dago, arlorik gehienetan.

Sakonen lantzen diren alderdiak elementu fisiko zein biologikoei buruzko oinarrizko ikerketa eta baliabideen kontserbazio nahiz kudeaketara bideraturiko ikerketa dira. Hala ere, hutsune ugari ikusten da ekosistemen egituraren eta funtzionamenduaren ezagutzan.

Gutxiagotan lantzen da ondoko helburuak dituen garapen sozioekonomikoan oinarrizko ikerketa: eutsigarritasuna, ingurugiro heziketa eta ingurune zuzendaritza nahiz kudeaketa.

Ez dago lanerako lehentasun batzuk ezartzen dituen ikerketa egitamu egituraturik. Kudeaketan sortzen diren beharrezan eta arazoak sarritan faktore erabakitzailenak izaten dira ikerketa lanaren gaiak aukeratzeko orduan; orain arte unibertsitatean zereginotan ibili diren pertsonen interes partikularra eta profesionala ere faktore erabakitzaila da.

Horren ondorioz, ikerketa jardueretarako ekipamendu eta instalazio erabilgarriak egituratu barik daude oraindik, baita kontserbazio edo jarraipen jardueretarako behar direnak ere. Halaber, ez dago aurrekontu handirik ikerketarako; beraz, ikerketa hori honelaxe sustatzen da: unibertsitateekin egindako hitzarmenen, beken eta erakun-

deek emandako laguntzen bidez; era berean, Administrazioak ere kontratuak egiten ditu, ikerketa hori kudeatzeko beharrezana ikusita.

Jarraipen ekintzak ezinbestekoak dira edozein ikerketa lan egiteko. Ekintzok (egiten direnean) inguru fisiko eta biologikoaren aldagaietan oinarritzen dira batik bat; inguru sozioekonomikoan oinarrituriko lanak ez dira horrenbeste aztertzen (estatistikak baino ez dira jorratzen).

Ez dago ikerketa eta kudeaketa lotzeko moduko baliabiderik. Halako baliabideak, ostera, behar-beharrezkoak dira, kontutan hartzen badugu gehienetan oso zaila izaten dela ikerketa kudeaketara egokitzea; izan ere, ikerketan emaitzak apurka-apurka agertzen dira, eta kudeaketan, berriz, presa itzela izaten da emaitzok eskuratzeko. Hori dela eta, oso garrantzitsua da eremu egokia sortzea ikerketa programa egituratua eduki ahal izateko; programa horrek Biosfera Erreserbaren kudeaketa ohartarazi eta informatu beharko du.

Ez dago tresna egonkor nahikorik ikerketa esperientzien trukea bultzatzeko Biosfera Erreserbaren eremuan. Dena den, orain arte egindako jarduketak urriek balorazio oso ona izan dute: jarduketok komenigarriak direla eta halakoak egiten jarraitu beharra dagoela azpimarratu da. Ondorio horixe atera zen "Biosfera Erreserbaren ikerketa oinarritzko eta aplikatuari buruzko zientzi bilera" izenekoan ere (1993ko azaroak 25 eta 26). Bilera hori Euskal Herriko Unibertsitateko Zientzi Fakultatean egin zen; bertan, halako bilera bultzatzeko eskatu zitzaion Patronatuari, eta ikerketa lanen emaitzak zabaltzeko.

Halaber, oztopoak daude lankidetzak programak ezartzeko Biosfera Erreserban inplikaturiko ikertzaile, aditu eta erakundeen artean. Oztopo horiek herrialdean edo nazioan ezezik, nazioz bestaldean ere isladatzen dira.

Arazo handiak ikusten dira ikerketen emaitzak Biosfera Erreserbako arazo eta beharrezanetara hurbiltzeko. Arazo horiek, berriz, Biosfera Erreserban organo dinamizatzaile aktiborik ez egoteak eragin ditu; Erabili eta Kudeatzeari buruzko Egitamu Gidaria onetsi eta garatuta, ahaleginak egiten ari dira arazo hori konpontzeko.

Biosfera Erreserban, ikerketa eta lankidetzak zientifikorako programa egituratu bat ez egotean, adituak hezteko programa egituraturik ere ez dago, ezta programok ezartzeko baliabide egokirik ere. Prestakuntza hori estu lotuta dago ikerketa eta lankidetzak zientifikorako lanen garapenari. Gainera, halako heziketa baterako, inplikaturiko alderdi guztiek plangintza koordinatua egin beharko dute; plangintza hori ondoko sailek egin beharko dute batez ere: maila guztietako administrazioetan politika zientifikoa, nekazaritza eta ingurugiroan erantzukizuna duten sailek.

2.4. Erabilera Egitamua Urdaibaiko Biosfera Erreserba Erabili eta Kudeatzeari buruzko Egitamu Gidarira egokitzea

URDAIBAiko Biosfera Erreserba Erabili eta Kudeatzeari buruzko Egitamu Gidaria (EKEG) tresna arau-emailea da, eta 5/1989 Legea garatzeko sortu zen. Beraren helburua Erreserba horretako ekosistema guztiak babestu eta suspertzea da (azaleko nahiz lurpeko urak eta landaretza autoktonoa, batik bat), eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbako lurzoru urbanizaezinaren erabilera zentzuduna bultzatzea.

Helburu global hori zehazteko, 8 helburu orokor ezartzen dira EKEGaren 17. artikuluan. Esate baterako, 5. helburu orokorra hauxe da:

Ondare naturalaren eta kulturalaren inguruneari buruzko ikerketa, interpretazioa eta heziketa sustatzea

Helburu orokor hori betetzeko, EKEGak ondoko estrategia ezartzen du, jarduketagidalerro multzo batekin batera:

Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren kudeaketak eta bertan burutuko diren jarduketek, baliabide naturalak eta kulturalak ezagutzea, ezagupenak beste sektoreetara eskualdatzea eta ingurugiroaren zaintzarako jarduerak eta tokiko biztanlegoaren eta orokorrean denon heziketa eta prestakuntza ahalbidetuko duten ekimen eta jarduerak bultzatuko dituzte.

Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren EKEGa garatzen duten oinarrizko tresnak Lurralde Ekintza Egitamuek dira, baita Erabilera Egitamuek eta Programa Osotuek ere.

Helburu orokor hori betetzeko, eta berori lortzeko ezarri diren estrategia eta gidalerroak ere kontutan hartuz, "Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Ingurugiroaren Interpretazio, Ikerketa eta Hezkuntzarako Erabilera Egitamua" izeneko egitamua presatu da, berarekin doazen Programa Osotuekin batera.

Erabilera Egitamuek ez dauka hirigintza izaerarik. Beraren helburu nagusia jarduketa eremu zehatza ezartzea da; jarduketa eremu horrek eragina izango du bertako biztanleengan eta gizarte agenteengan, baita Urdaibaiko lurraldearen beste erabilzaile batzuegan ere. Horrela, gauzatu egin nahi da Garapen Eutsigarriaren kontzeptua, bertako eragileen ikerketa, informazio, heziketa, prestakuntza eta partaidetza zuzenaren bidez.

Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Ingurugiroaren Interpretazio, Ikerketa eta Hezkuntzarako Erabilera Egitamua izeneko egitamuek ondoko Programa Osotuek ditu:

- Informazio eta Zabalkunderako Programa.
- Sektoreen Heziketa Teknikorako Programa.
- Ikastetxeetako Ingurugiro Heziketarako Programa.
- Ikerketa eta Lankidetzaren Zientifikorako Programa.

3. Helburu nagusiak eta gomendioak

Urdaibaiko lurraldearen eta bertako biztanleen Ahulezia, Mehatxu, Sendotasun eta Aukerei buruz egindako diagnostikoaren arabera, eta Biosfera Erreserben eginkizuna ere kontutan hartuz (ikerketa, hezkuntza eta gaikuntza oinarri izanik, garapen eutsigarriko probak egitea), ondoko Helburu Nagusiak eta gomendioak proposatu dira Erabilera Egitamu honetarako.

3.1. I. helburu nagusia

Urdaibaiko lurraldean diharduten biztanleak eta gizarte sektoreak biosfera erre-serbaren kontzeptuarekin identifikatzea eurek ere partehartze aktiboa izateko lurralde horren kudeaketan.

Gomendioak:

- Bertako biztanleei Biosfera Erreserbaren kontzeptua ezagutaraztea; halaber, Erreserbak UNESCOren MaB Programaren babes kategoriatzat duen eginkizuna jakinaraztea.
- Urdaibaien naturaren, kulturaren eta gizakien aldetik dauden baloreak azpimarratzea; izan ere, horiek funtsezko ondarea osatzen dute, pertsonen bizitza kalitatea eta garapen intelektuala hobetzeko.
- Urdaibaiko Biosfera Erreserba Babestu eta Antolatzeari buruzko 5/1989 Legearen eta berori garatzeko tresnen helburuak eta edukiak jakinaraztea. Alde onak nabarmendu behar dira, baina mugak ezkutatu barik.
- Patronatuak Biosfera Erreserbaren eguneroko bizitzan parte hartzea ahalbidetuko da.
- Urdaibaik Biosfera Erreserben Sarean eta nazioarteko programetan parte hartzea bultzatuko da, elkartrukeak eragiteko ikerketa, hezkuntza eta jabetze

mailan. Urdaibaik zeregin garrantzitsua izan beharko du informazio, dokumentazio eta zabalkunde gunetzat.

- Elkartegintza eta bertakoen partaidetza sustatzea, Urdaibaiko Biosfera Erreserba dinamizatzeko; nolanahi ere, gizarte sektore guztien partehartzea bultzatuko da.
- Turismo Bulegoak lurraldeari buruzko informazio integralerako zentro bihurtzea. Horietan, bertako arduradunak ondo hezi ondoren, lurraldeari buruzko informazioa emango zaie bertako biztanle nahiz bisitariei. Zentro horietatik, Biosfera Erreserbako baliabideak eta bertara doazen pertsonak izan beharreko jokabide zuzenak bultzatu behar dira.

3.2. II. helburu nagusia

Ingurugiro heziketa kontzientziazioa indartzea maila guztietan bertako erkidegoa ingurugiroaren defentsan eta sustapenean inplikatzeko.

Gomendioak:

- Inguruneari buruzko informazioa eman, prestatu eta zabaltzea, Biosfera Erreserban dauden ingurugiro jarrera anitzak kontutan hartuz.
- Bertako agenteak Urdaibaiko baloreen zabalkunde eta kontzientziazio prozesuetan elkartu.
- Kontserbazioaren eta garapenaren arteko lotura estua nabarmentzea, kontzeptu horiek kontrajartzea ekiditeko.
- Biztanleei ingurugiroa errespetatzeko mezuak eta bide egokiak jakinaraztea; arazo zuzenak eta egunerokoak erabiliko dira horretarako.
- Bisitariei lurralde osoko baliabide eta gaitasunen berri ematea (natura, historia, gastronomia, artea, etab.); inguru naturala eta giza ingurunea kontserbatu eta errespetuz erabiltzearen garrantzia ere azpimarratzea.
- Ingurugiro Heziketa alderdi garrantzitsutzat hartzea lurraldearen kudeaketarako; beraz, heziketa hori lurraldean eragina duten egitamu guztietan sartu beharko da (Lurralde Ekintza Egitamuak, Sektoreen araberrako Egitamuak, etab.).
- Ingurugiro gatazkak modu baketsuan konpondu behar direla adieraztea. Elkarrikeria eta partehartzearen bidea gailenduko da ezbaiak gainditzeko.

3.3. III. helburu nagusia

Biosfera erresebaren gizarte eta ekonomi garapena sustatzea ikerketan hezkuntzan eta gaikuntzan oinarrituz epe luzearako garapena izango da, eta bertako baliabideen araberakoa (garapen eutsigarria).

Gomendioak:

- Garapen eutsigarriaren kontzeptua zabaltzea. Garapen horren helburua gure habitat-aren (Biosferaren) kontserbazioa da.
- Lurraldearen antolaketa eta ingurugiro baliabideen kudeaketa zentzuduna bultzatzea, lurraldearen garapen integrala, bateratua eta solidarioa bermatzeko.
- Oinarrizko ikerketa eta aplikatua garatzea, alde horretako arazoak konpontzeko, natur nahiz gizarte zientziak jorratzen dituzten disziplinetako proiektuen bidez. Lurraldearen jarduera tradizionalen eta kultur ondarearen ikerketa bultzatuko da batik bat.
- Eliteko zentroetatik (Unibertsitatea, ikerketa zentroak, etab.) ezagupenak bidaltzea gizartera eta toki administrazioetara; eta alderantziz. Azken batean, ikerketen emaitza praktikoak bertako biztanleek ulertzeko moduko hizkera teknikoan azaldu beharko dira, eta euskara hizkuntza oso garrantzitsua izango da horretarako.
- Zabaltzeko materialak prestatzea, ingurugiro baliabideen eta lurraldearen erabilera eutsigarriak jakinarazteko.
- Komunikazio mekanismoak ezartzea, baita kudeatzaile eta erantzuleak hezteko sistemak ere, Urdaibaiko Biosfera Erresebari buruzko erabakiak har ditzaten.
- Gaikuntza jarduerak sustatzea, toki erkidegoetarako eta beste agente batzuentzat; horrela, erabateko partehartzea izango dute Biosfera Erresebaren plangintzan, administrazioan eta jarraipen sistemetan.
- Produkzio sektoreak garapen eutsigarriko agente bihurtzea, arazoaz jabetzeari dagokionez.
- Lehen sektorearen garrantzia azpimarratzea. Izan ere, elementu nagusia da Biosfera Erresebaren ezaugarriak kontserbatu eta mantentzeko.

4. Programa osotuak

4.1. Sarrera

Erabilera Egitamu honen Helburu Nagusiak zehaztu ondoren, eta bidezko gomendio guztiak emandakoan, zenbait jarduera eremutan eragina izateko behar diren baliabideak proposatzen dira; hain zuzen ere, baliabideok Interpretazioari, Ikerketari eta Ingurugiro Heziketari loturiko eremuetan izango dute eragina, ondoko Programen bidez:

- Informazio eta zabalkunderako programa.
- Sektoreen heziketa teknikorako programa.
- Ikastetxeetako ingurugiro heziketarako programa.
- Ikerketa eta lankidetzaz zientifikorako programa.

Programok jarduketa eremu bakoitzeko helburuak zehazten dituzte. Gainera, neurri teoriko eta praktikoko batzuk planteatzen dituzte, bai Urdaibairen helburuak (Biosfera Erreserbatzat dituenak) lortu ahal izateko, bai bertako aktoreen informazioa, inplikazioa eta partehartzea hobetzeko (horrela, Erabili eta Kudeatzeari buruzko Egitamu Gidarian ezarritako gainontzeko tresnak ere garatu ahal izango dira).

Lau Programa horietarako, Erabilera Egitamurako beraz, 10 urteko indarraldia ezarri da. Horrela, 2007 urtean lan berriak hasi ahal izango dira; lanok, berriz, oinarri sendoa izango dute azpiegituren aldetik, baita biztanleek emandako laguntzari dagokionez ere (Biosfera Erreserbaren helburuak lortzeko laguntza).

Programa bakoitza Patronatuaren lanean oinarrituz aplikatu ahal izateko, eta Patronatu horrek eguneroko lanean bereganatzen dituen eginkizun anitzak kontutan hartuz, Unitate batzuk sortu nahi dira; horietan, ahal dela egitura berririk sortu gabe, jarduerak edo gizarte agenteak dinamizatuko dira, Udetxeako Jauregian lanean dabilen pertsona talde baten bidez, beti ere enbarazurik egin gabe planteaturiko jardue-

retan sor daitezkeen ekimen pribatuei. Izan ere, antolaketa eremu egokia sortu nahi izan da, ekimen horiei laguntza emateko Patronatuak sustaturiko jarduketan bidez.

Programa bakoitza independentea da bere jarduketetan. Hala ere, guztiak lurralde eremu berean garatzen direnez, eta denen helburuak ere berdinak izanik, programok nahiko lotuta daude elkarrekin. Eta hori ona da, bai biztanleek programa horien aplikazioari buruz izan dezaketan ulerkeraren aldetik, bai beharrezko izan daitezkeen baliabide ekonomiko eta pertsonalak aurrezteari dagokionez. Horren haririk, esan daiteke onurarik handiena atera nahi izan zaizkiela Urdaibaiko Erreserban dauden edota jardunean dabiltzan baliabideei (garraio publikoa bezalako zerbitzuak ere barne).

Proposatutako jarduketetatik asko bertako biztanleei zuzenduta daude. Izan ere, beharrezkotzat jotzen da biztanleek jakin dezaten Biosfera Erreserbaren partaide direla; horrek, epe luzera, bisitariengan ere eragina izango du: inguruaren kalitatea ezezik, bisitariari emango zaien zerbitzua ere hobetu egingo da. Saihestu egin nahi izan da jarduketa horien ondorioz sorturiko erabilera publikoak ingurugiroan izan dezakeen eragina. Hori dela eta, jarduera asko biztanlerik gehien dituzten eremuetan egin dira (ez dira ekologi balore handiko aldeetan egiten); hala ere, Urdaibaiko ekosistema anitzak ezagutaraztea beharrezkoa dela kontutan izan da.

Egitamua garapena anitzagoa izateko, eta egitamu hori errazago finantzatzeko, uste dugu beharrezkoa dela ekimen pribatua inplikatzeko zenbait jarduketa eta ekimamendutan. Lurraldean ekimen pribatuek interes handia erakutsi dute, ingurugiro heziketari loturiko jarduerak garatzeari dagokionez; beraz, horien eta gerora sor daitezkeen beste ekimen batzuen partaidetza ona izango da Biosfera Erreserbarako.

4.2. Oinarrizko baldintzak Erabilera Egitamua inplementatzeko

Erabilera Egitamu honen Programetan ezarritako jarduketak bete nahi badira, neurri batzuk hartu behar dira Patronatuaren ibilera optimizatzen.

Lehenengo eta behin, irudi berezi bat bilatu behar da, biztanleei hobeto ezagutarazteko Biosfera Erreserbaren eta Patronatuaren errealitatea.

Programek eurotara loturiko pertsonak egin dezaketan lan dinamizatzailearen aldeko apostua egiten dute, eta baztertuta gelditzen da egitura handi eta berrien sorrera. Lan dinamizatzaile horrek eginkizun berriak izango ditu: jendeaurreko lana, komunikazio bulego izatea, dokumentatzeko nahiz kontsultarako zentro izatea, gizarte dinamizazioa eragitea, ikasleei eta zientzi erkidego aurreko lana, etab.

Bestalde, Udetxea erreferentzi zentro nagusi izan beharko da, Urdaibaiko Biosfera Erreserban interesik duen edonorentzat. Horri dagokionez, eraikina eginkizun anitzeko zentroa izango da: administrazio, informazio, ingurugiro interpretazio eta jendearen partehartzerako zentroa. Horretarako, bertako espazio erabilgarri guztiak aprobetxatuko dira, eta besteren bat ere prestatuko da, eraikuntzan egin daitezkeen handitzeen bidez.

Erabilera Egitamua garatzeko egin behar den esfortzu ekonomikoak eta proposaturiko jarduketa ugariak (administrazio maila eta organo anitzetan gauzatuko dira) erakunde publikoen lankidetzara behar dute, baita erakunde pribatuen fondoak ere. Horri dagokionez, ondoko erakundeek Egitamu honetan duten interesa aztertu beharko da hasiera-hasieratik: Eusko Jaurlaritzako Sailek, Bizkaiko Foru Aldundiak, inplikaturiko Udalek eta enpresa nahiz erakunde pribatuak (Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren jarduera edo eremuarekin loturaren bat duten enpresa nahiz erakunde pribatuak).

Halaber, beharrezkoa da bertako biztanleak eta, oro har, interesa duten pertsona guztiak Biosfera Erreserbaren kudeaketan inplikatzea. Horretarako, protagonismoa eman beharko zaio Lankidetzara Kontseiluari, partaidetza eta eztabaidarako forotzat. Gizartearen eta Patronatuaren arteko harremana, neurri handi batean, foro horren bidez bideratu beharko da. Gizartearen partaidetzaren sustatze honetan, Erabilera Egitamu hau eta berorren urteko ebaluazioak aurkeztu beharko dira Lankidetzara Kontseilu horretan.

Amaitzeko, esan behar da Erabilera Egitamuak (berori osatzen duten programa guztietan) hainbeste argitalpen, erakusketa, ikerketa programa, heziketa jarduera eta abar jasotzen duela bere baitan. Lan lerro horietan guztietan, era koordinatuan jardun beharko da: azken batean, egitamu bakarra garatu behar da, eta ez lau programa partzial eta loturarik gabeak.

5. Informazio eta zabalkunderako programa

5.1. Sarrera

Informazioa eta zabalkundea oinarrizko elementuak dira lurraldea ezagutu eta artatzeko prozesuetan. Alderdi horiek alboratzen dituzten jarduketa guztiek eraginkorrak ez izateko arriskua izango dute.

Urdaibaiko Biosfera Erreserba zehazten duten alderdiei buruzko informazioa eta zabalkundea ere oinarrizko zutabeak dira, Erabilera Egitamu honetan jasotako gainerako programetarako. Izan ere, bertako biztanleek lurraldea, berorren antolaketa, bertako baloreak eta gerora egingo diren proiektuak (Urdaibai proiektuon barruan egongo da, Biosfera Erreserbatzat) ezagutzeko oinarritzen da biztanleen laguntza eta konplizitatea, eta Urdaibaik eskualde mailako kontzeptu berriztat duen onarpena ere horrexetan oinarrituko delarik.

Egitamu honetan proposatzen diren jarduketan bidez, gizarte agenteek nabarituriko hutsunea bete nahi da, hau da, informazioa eman nahi da Biosfera Erreserbari buruz (zer den, zeintzuk diren beraren helburuak, zer ondorio dakarren eta zelan inplikatzeko dituen bertako biztanleak).

Baina, halaber, bide batzuk ere ireki nahi dira gizartearen partehartzerako, eta bertako gizarte agenteak komunikazio prozesuetan inplikatuko nahi dira; era berean, agente horiek eta Biosfera Erreserbaren organo kudeatzaileek informazioa elkartrukatzea ere nahi da. Beraz, Egitamu honek dinamizatu egin nahi ditu gizarte sektore guztiak, sektoreek helburu komunak bila ditzaten euren aniztasun eta konplexutasunetik abiatuta.

Beraren diseinuaren elementu nagusiak Patronatua eta Gizarte Interpretazio eta Dinamizaziorako Zentroa dira (azken hori ere Udetxeako jauregian bertan egongo da). Izenak berak dioenez, Zentro horren helburua ez da bakarrik lurraldea posizio pasibo batetik interpretatzea: parte hartu nahi du lurraldearen ibileran, gizarte

agenteekin elkarrekintzak eginez; gainera, Urdaibaiko Biosfera Erreserbako biztanleek bizi duten gizarte errealitatearen zati izan nahi du.

Informazio eta Zabalkunde Programa, bestalde, Urdaibaiko Biosfera Erreserbako biztanleak lurraldearen itxuraketa berrian integratzeko moduko mekanismoa da; halaber, biztanleok inplikatu nahi ditu zenbait ideia orokor (garapen eutsigarria, ingurugiroaren kontserbazioa, etab.) ulertu, babestu eta zabaltzeko.

Informazio eta Zabalkunde Programak oinarri bi izan beharko ditu: Biosfera Erreserbak izan beharreko korporazio-irudiaren aurretiazko definizioa eta Udetxea gizarte etxetzat eta gizartearen partehartzerako lekutzat sustatzea.

5.2. Helburu zehatzak

1. Korporazio-nortasun autonomoa izatea Urdaibaiko Biosfera Erreserbarako eta bertako Patronaturako.
2. Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Patronatuari behar dituen informazio eta zabalkunde baliabide guztiak ematea, ezarrita dituen kudeaketa helburu guztiak garatzeko.
3. Patronatua eta berorren egoitza (Udetxeako Jauregia) erreferentzi elementu funtzionalak eta grafikoak izatea Urdaibaiko Biosfera Erreserban.
4. Gizartearen partehartzerako bideak ezartzea Patronatuan, tokiko erakundeek eta gizarte agenteek informazioa elkartrukatu ahal izateko.
5. Komunikazioa, informazioa eta zabalkundea sustatzea Biosfera Erreserbari loturiko gauza guztietan.
6. Materialak garatzea Biosfera Erreserbaren ezaugarriak (ingurune, gizarte eta kultur mailakoak) interpretatzeko.
7. Beharrezko ekintza eta azpiegitura guztiak sustatzea, helburu horiek lortzeko.

5.3. Jarduteko irizpideak

Informazio eta zabalkunde programa horri gizarte agenteek harrera hobea egiteko, jarduketak egitean kontutan izan beharreko irizpide batzuk ematen ditugu. Irizpide horiek kontsultaturiko gizarte sektoreen iritzia komunikatu eta aztertzearen ondorio dira.

- Biztanleei informazio zuzena lortzeko aukera ematea.

- Gizarte agenteen ohiko informazio bideak erabiltzea era guztietako mezuak zabaltzeko.
- Patronatuak eta gizarte agenteek Biosfera Erreserbari buruzko informazioa elkartrukatzea; horretarako, agenteok Patronatuan partehartze eraginkorra izateko bideak ireki beharko dira.
- Beste Biosfera Erreserba batzuen garapen prozesuak jakinaraztea. Informazioa ematea tokiko biztanleek izan ditzaketen onurei eta horiek lortzeko epeei buruz. Horretarako, informaziorako MaB bidea suspertu beharko da berriro.
- Biosfera Erreserben nazioarteko sareen, Natura 2000, Ramsar-eko Hitzarmena, ... barruan egoteak Europako edo nazioarteko fondoak lortzeko eskaintzen dituen aukerak nabarmentzea.
- Komunikazio eta eztabaidarako bideak ezartzea administrazioen artean; gizarte agenteen eta Patronatuaren bitartekaritza lana bultzatzea.
- Urdaibaiko Lankidetzaren Kontseilua sustatu eta bultzatzea, partehartzeari eragiteko elementutzat.
- Lehentasuna ematea zenbait elkarteri eman beharreko dirulaguntzei, hain zuzen ere, Urdaibaien sorturiko eragin kaltegarriak aztertzeko jarduerak egiten dituzten elkarteei.
- Euskararen erabilera sustatzea Patronatuaren informazio eta komunikazio lan guztietan.

5.4. Jarduketan katalogoa

- Komunikazio politika:
 - 1. jarduketa: nortasun grafikoa eta korporazio-irudia diseinatzea.
 - 2. jarduketa: komunikazio unitatea:
 - informazio orokorrerako boletina,
 - harremanak komunikabideekin,
 - partehartzea tokiko irratietan,
 - lankidetzaren prentsa idatzian,
 - publizitatea orokorrean,
 - merchandising-a,
 - babesak,
 - sariak.

- Ekipamenduak:
 - 3. jarduketa: Udetxea gizarte informaziorako eta dinamizaziorako zentrotzat egokitzea:
 - ingurua interpretatzeko atala,
 - etnografi atala,
 - garapen eutsigarrirako atala,
 - gizarte dinamizaziorako atala.
 - 4. jarduketa: informaziorako udal zentroak.
 - 5. jarduketa: ekipamenduak sortzea eta gunee batzuk egokitzea interes berezia duten lekuetan:
 - Biosfera Erreserbaren seinaleztapen orokorra,
 - ekipamenduak, hegaztiak behatzeko,
 - parke botanikoen seinaleztapena,
 - begiratokien egokitzapena,
 - aisialdirako aldean egokitzapena.
 - 6. jarduketa: ibilbideei loturiko jarduketak:
 - tokiko bidatzak,
 - lehen sektoreko produktuen bidatzak,
 - norberak gidaturiko ibilbideak.
- Zabaltzeko eta erakusteko materialak:
 - 7. jarduketa: urteroko argitalpenak:
 - urteroko egutegi-posterra,
 - patronatuko jardueren memoria,
 - garraio publikoaren ordutegien liburuska.
 - 8. jarduketa: zabalkunderako bildumak:
 - Biosfera Erreserbako ekosistemak,
 - sintesi agiriak.
 - Urdaibairi buruzko gidaliburu eta eskuliburuak gaika.
 - 9. jarduketa: aldizkakoak ez diren argitalpenak:
 - EKEGaren eskuliburu praktikoa,
 - zerbitzuen gidaliburua,
 - Urdaibaiko Biosfera Erreserbako liburuska orokorra eta mapa,
 - josteta jarduerak egiteko gidaliburua,
 - portaera kodea,
 - ukus-entzunezko materialak.
 - 10. jarduketa: erakusketak.

5.5. Jarduketan deskripzioa

Informazio eta Zabalkunde Programa oinarrizko elementuon inguruan egituratuta dago:

- Komunikazio integraleko politika garatzeko behar diren bitarteko material oinarrizkoak finkatzea (korporazio-irudiari buruzko eskuliburua Erreserbarako nahiz Patronaturako, eta azpiegitura prentsa bulegoan egin beharreko lanetarako).
- Udetxeak ingurugiro informazio eta zabalkundearen eremuan oinarrizko ekipamenduzat duen zeregina indartzea; hala ere, beraren osagarritasuna zaindu beharko da: lurraldean gizarte agenteen ekimenez sortu diren edo sor daitezkeen gainerako ekipamenduekin, Biosfera Erreserbako udalerrietan ezarri beharreko (era deserdiratuan ezarri ere) informazio egiturarekin eta, azkenik, leku berezi edota egokietan (ingurugiro hezkuntzako jardueretarako) egin beharreko seinaleztapen edo egokitzapenekin.
- Argitalpenen eta erakusketen politika integratua.

Biztanleek komunikazio, informazio eta zabalkunde estrategia zehatz baten zati osagarritzat ulertu beharko dituzte lekuen seinaleztapena edo zabalkundeko materialen argitalpena bezalako ekintza zehatzak. Horretarako, “Nortasun grafikoari eta korporazio-irudiari buruzko eskuliburua” eman beharko zaie Biosfera Erreserbari eta Patronatuari, eskuliburu hori ezinbestekoa baita Erabilera Egitamu honetan ezarritako gainerako jarduketei batasuna emateko.

Udetxean, “Komunikazio unitate” bat sortu behar da; izaera teknikoduna izango da eta informazio zeregina garatuko du. Politika horrek Urdaibaitik kanpoko komunikabideekin izan beharreko harremanen ardura hartuko du, baina batez ere Biosfera Erreserbaren barruko komunikabideekin izan beharreko harremanen ardura. Azken horiei dagokienez, zenbait jarduera planteatu daitezke, alde horretako irratian, egunkari eta aldizkarietan oinarrituta. Tokiko irratietan, programa bat babes daiteke Biosfera Erreserbako ingurugiroari loturiko eguneroko gaiak buruz. Komunikabide idatzietan, Erreserbari buruzko orrialde edo artikuluak sartzeko ahalegina egin daiteke, komunikabideotan ere ingurugiro gaiak aztertzeko. Irratietan nahiz komunikabide idatzietan, profesionarien, tokiko elkarte nahiz taldeen eta ikertzaile, teknikari nahiz administratzaileen partehartzea lortu behar da; horiek iritziak eta lanak eskainiko dituzte, lurraldeari loturiko alderdiei buruz. Horren bidez, Patronatua komunikabideetan etengabe agertzea lortu nahi da; horrela, berori ere gizarte agente bihurtuko da, eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbako biztanleen eguneroko bizitzan egongo da.

Informazio lanak egiteaz gain, komunikazio politikak Biosfera Erreserba eta Patronatua sustatu beharko ditu, bertako biztanleen eta joan daitezkeen bisitarien artean. Horri dagokionez, “merchandising-eko” eta “publizitate orokorreko” estrategiak

garatzea planteatzen da (estrategiok estu lotuta daude Erreserbaren korporazio-irudiak dituzten produktuak saltzearekin); halaber, beste jarduketa zehatz batzuk ere planteatzen dira, eta horien helburua ez da publizitatea egitea bakarrik, biztanleekiko harremanak hobetu eta sakontzea baino: “Kultur, gizarte edo kirol jarduerak babes-tea” eta “Ingurugiroari buruzko urteroko lehiaketa bat” egitea. Jarduketa bi horien helburua Patronatua Urdaibaiko gizarte bizitzan sartzea da. Lehenengo jarduketarekin, Patronatua erreferentzi elementu bihurtuko da eskualdearen dinamizazioan oso aktiboak diren gizarte talde batzuetarako. Bigarren jarduketaren bidez, Patronatuak biztanleria dinamizatuko du, Biosfera Erreserba egonda lortu nahi diren helburuekin zerikusirik duten gaitan.

Bestalde, alde horretan dagoen ingurugiro heziketako ekipamendu sarea osatzeko, eta Udetxeako jauregia Patronatuko egoitza integrala izateko (administrazio lanak egingo dira bertan eta alde horretako benetako hiri-zentroa nahiz bisitariarentzako lehen erreferentzia ere izango da), gune batzuk egokitu beharko dira; gainera, behar beste langile egongo da “Informazio eta Dinamizazio Zentroa” bertan kokatzeko, berori baita elementu nagusia Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren oinarritzko ezaugarrien zabalkunderako. Zentro hori, bisitariak ez ezik, Urdaibaiko biztanle guztiek ere erabili ahal izango dute, eta bertan gizarte dinamizaziorako jarduerak egingo dira. Beraren egiturari, lau atal planteatzen dira; horiek apur-apurka gaitzen joango dira Erabilera Egitemua indarrean dagoen artean: “Ingurua interpretatzeko atala”, “Etnografi atala”, “Garrapen eutsigarriarako atala” eta “Gizarte dinamizaziorako atala” (atal bakoitzak helburu zehatz batzuk izango ditu). Epe ertain edo luzera, Udetxeako gizarte eta kultur jarduerak espazioaren erabilgarritasuna gaintzen duela ikusiz gero, planteatzen hasi beharko da lerrokada honetan aipaturiko ikasgela edo ekipamenduak (baten batzuk nahiz guztiak) beste nonbait instalatzea. Beste herri batzuetan ekipamendu orokorrak berehala irekiz gero, zailagoa izango da Patronatuaren irudi baterakoia lortzea.

Nolanahi ere, Zabalkunde eta Dinamizazio Programa honen barruan, deserditze estrategiak sartzen dira, baita udalerriri guztiak Egitemu Gidari honetan integratzeko estrategiak ere. Horretarako, “Udaletako informazio zentroak” sortuko dira, biztanleei Biosfera Erreserbaren ezaugarriak ulertzeko moduan azaltzeko; gainera, biztanleoi beharrezko informazio guztia emango diete Biosfera Erreserbaren baliabideak aprobetxatu ahal izateko.

Bestalde, ingurugiro hezkuntzako jarduerak daude; horiek burutzeko, Udetxeatik eta udal zentroetatik egindako informazio eta zabalkunde lana osatu behar da, interes bereziko lekuetan ekipamenduak instalatuta eta espazioaren egokitzapenak eginenez. Horri dagokionez, ondoko proposamenak egiten dira:

- Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren natur baliabiderik nagusienetarikoa fadura aldean hegazti mota ugari egotea da. Proposatzen diren “Hegazti behatokiak” aukera ematen dute Urdaibaiko aberastasun ornitikoak hobeto aprobetxatzeko

eta lurraldea beharrezko ekipamendu guztiekin hornitzeko; horrela, hegaziak egoera klimatiko txarretan ere behatu ahal izango dira. Gainera, hegaziak identifikatzeko kartelak ipinita, erabiltzaileek sentsibilizazio handiagoa izango dute, gure Autonomi Erkidegoaren alde heze garrantzitsu honen kontserbazioari dagokionez.

- Europa Parkean (Gernika) eta Txatxarramendin (Sukarrieta) proposatzen diren “parke botanikoen” helburua bertako espezieak aprobetxatzea da; horrela, seinale erraz batzuk ipinita (Europako Parkearen kasuan), Urdaibaiko lurraldeko balore botanikoak laburbilduko dira.
- “Begiratokiak” atondu nahi dira; horretarako, azpiegitura txikia erabiliko da, begiratokioi etekin handiagoa ateratzeko Biosfera Erreserbako paisajearen interpretazioan. Halaber, biztanle askok erabilitako “jostetalde” batzuetan seinaleak ipini nahi dira, horien erabilera errespetutsu eta eutsigarria sustatzeko.
- Azkenik, jarduketa batzuk egin nahi dira (seinaleak ipini, liburuskak argitaratu, oraingo ekipamendu nahiz baliabideei buruzko informazioak bildu eta koordinatu), Biosfera Erreserbako ezaugarriak (natur, gizarte eta kultur mailakoak) ahalik eta ondoen gozatu ahal izateko. Lehenengo eta behin, udalerrietako biztanleek paseatzeko erabiltzen dituzten “tokiko bidatzak” egokitu nahi dira; kartel eta liburuska erraz batzuk erabiliko dira bertako balore garrantzitsuenak ezagutarazteko. Beste ibilbide mota batzuk ere planteatzen dira, hain zuzen, alde horretako “lehen sektoreko produktuekin” lotuta daudenak. Ibilbide horien bidez, produkzio sistemak ezagutarazi nahi zaizkie bisitariei, baita sistema horiek ingurugiroaren kontserbazioarekin duten lotura ere. Halaber, ibilbideok bertako produktuetariko batzuk merkaturatzeko aukera emango dute. Azkenik, “norberak gidaturiko ibilbide” batzuk planteatzen ditugu; horiekin batera, interpretaziorako materialak eskainiko dira, jendeak Urdaibaiko ekosistema anitzak ezagutu ahal izateko.

Aurreko lerroketan aipaturiko materialak (Informazio eta Zabalkunde Programa garatzearen ondoriozko komunikazio eta ekipamendu beharretarako osagarritzat aipatu ditugu), baita ondoren proposatzen direnak ere, Patronatuak Erabilera Egitemu osorako duen argitalpen politikan integratuko dira. Informazio eta Zabalkunde Programari dagokionez, hiru material mota argitaratu behar da: urteroko argitalpenak, bildumak eta argitalpen zehatzak.

Urteroko argitalpenen artean, ondokoak sartzen dira:

- “Informazio orokorreko boletinak” Urdaibairi buruzko berriak emango ditu; halaber, laguntza ofizialei, ikerketa berriei, ikastaroei, jardunaldiei, lan burtsei eta abarri buruzko berriak ere emango ditu.

- “Egutegiak”, publizitatea egiteaz gain, informazio garrantzitsua eskainiko du Biosfera Erreserbako gertaerei buruz.
- “Patronatuko jardueri buruzko memoriaren” argitalpenak lurraldean garaturiko jarduerak ezagutaraziko dizkie bertako biztanleei; horrela, biztanleek hobeto baloratuko dituzte Biosfera Erreserbaren helburuak.
- “Liburuska bat garraio publikoen ordutegi eta ibilbideekin”; biztanle eta bisitariak liburuska hori erabiltzea lortu behar da.

Patronatuak hiru bilduma hauexek sustatzea nahi da:

- “Urdaibaiko ekosistemak”. Orri batzuetan, Biosfera Erreserbako ekosistema guztiak jasoko dira.
- “Sintesi agiriak”. Argitalpen horiek Patronatuak berak agindutako lan teknikoetan oinarrituz egingo dira. Horiek ingurugiro gaietan interesa duten pertsonen artean banatzea elementu ona da informatzeko eta jendea gaiaz jabetzeko; gainera, ospea emango diote editatzen dituen Erakundearen lanari.
- “Urdaibairi buruzko gidaliburuak”. Gaikako gidaliburuen bilduma izango da, Urdaibaiko inguru naturaleko elementu oso zehatzei buruzkoa: ekosistemak, tokiko izenak, itsasoaren liburua, nekazaritza ekologikoa...

Azkenik, Patronatuak aldian behin egin ditzakeen argitalpenak hauexek dira:

- “Erabili eta Kudeatzeari buruzko Egitamu Gidariaren eskuliburu praktikoa”. Eskuliburu hori argitaratuta, erantzuna eman nahi zaio biztanleek egindako informazio eskabideari, Urdaibai Biosfera Erreserba izendatzearen ondorioei buruz. Modu errazean, galdera-erantzuneko formatoarekin, Erabili eta Kudeatzeari buruzko Egitamu Gidariaren ezaugarri nagusiak azalduko dira.
- “Zerbitzuen gidaliburuak”. Argitalpen honetan, Biosfera Erreserbako zerbitzu guztiak sartuko dira (zentro ofizialak, ostalaritza, aisia, etab.); bertan, arte, paisaje eta abarren aldetik interesa duten elementuak ere aipatuko dira.
- “Urdaibaiko Biosfera Erreserbako liburuska orokorra eta mapa”. Biosfera Erreserba sustatzeko elementu nagusia izango da. Aldaketa txiki batzuk proposatzen dira gaur egun duen itxurari dagokionez.
- “Josteta jarduerak Urdaibaien”. Gidaliburu hau halako jarduerak sustatzen dituzten pertsona edo taldeei zuzenduta dago; beraren bidez, oinarritzko eza gutza batzuk eman nahi dira, jarduerok ingurugiroan eragin kaltegarririk ez izateko jarraitu behar diren irizpide eta arauak buruz.
- “Portaera kodea”. Jendea informatu eta jabeaz nahi da, inguru naturalean eta nekazaritza inguruetan izan beharreko portaera egokiei buruz.

- “Ikus-entzunezko materialak”. Biosfera Erreserbari buruzko bideo bat editatuko da, bertara doazen bisitariak erabiltzeko.

Informazio eta zabalkunde lana osatzeko, gaikako *Erakusketa* ibiltariak egin nahi dira.

5.6. Jarduketak ezartzeko gidalerroak

Informazio eta Zabalkunde Programa, Erabilera Egitamu honen barruko gainerako programak bezala, 10 urteko epealdian garatu nahi da, apurka-apurka. Programa horren helburua hauexek dira: 2007. urterako, behar bezala garaturiko mekanismo batzuk izatea, informazio eta zabalkunde prozesua ebaluatu, koordinatu eta dinamizatu ahal izateko lurralde osoan.

Hasierako fasean (bi urteko epean beteko da), Programa osoa egitea bermatuko duten oinarrizko lanak burutu beharko dira. Hasierako jarduketak hauexek izango dira:

- Erreserbaren eta Patronatuaren korporazio-irudia zehaztea eta nortasun eskuliburua prestatzea.
- Komunikazio bulegoa abian jartzea.
- Udetxea zentro integraltzat definitzea, eta ez administrazio zentrotzat bakarrik; Jauregia erabilera berrietara egokitzea (gizarte interpretazioa eta dinamizazioa).

Hasierako lanek aurrera egin ahala, programa garatzen joango da apurka-apurka, ondoko alderdietan hain zuzen:

- Harreman hobekak izango dira komunikabideekin, lankidetzak hasiko dira irratietan zein prentsa idatzian, eta Biosfera Erreserbaren nahiz Patronatuaren sustapen egitama garatuko da.
- Erakusketak eta programazioak egingo dira interpretazio eta partehartze zentroko ikasgeletan.
- Seinaleak ipini eta ekipamenduak instalatuko dira Udetxeatik kanpo.
- Argitalpen eta erakusketa ibiltarien egitama prestatuko da, Erabilera Egitamu honetako gainerako programekin koordinazioan.

5.7. Ebaluazio sistemak

Honen moduko informazio eta zabalkunde programa batean, emaitzak ebaluatzeke erarik onena Biosfera Erreserbako biztanle eta bisitarien jarrera aldaketa aztertzea da. Horretarako, garrantzitsuak izango dira agiri honen sarreran proposaturiko ikerketa soziologikoak.

Ebaluazio sistema oinarritzotzat, Informazio eta Zabalkunde Programarako, ondoko irizpideak proposatzen ditugu:

- “Partehartze indizeak”: biztanleen jarrera ezagutzeko, ekipamenduen erabilera eta lehengo jarduketetako partehartzea aztertuko ditugu. Horrela, esate baterako, biztanleek gizarte Interpretazio eta Dinamizazioko Zentrotik proposaturiko jardueretan parte hartu eta zentro hori erabiltzen badute, horrek aditzera emango du nabarmendu egin dela ingurugiroari dagokionez duten sentikortasuna. Gauza bera esan daiteke beste zenbait jarduketei buruz ere (ibilbideak, erakusketak edo ingurugiroari buruzko urteroko lehiaketa). Irizpide horretan oinarrituriko ebaluazioa egiteko, ekipamenduen erabilera kontrolatu beharko da, horrexetarako diseinatuko den galdeketa baten bidez. Lan hori burutzeko, kontutan izan beharko dira Biosfera Erreserban ingurugiro heziketan diharduten talde guztiak.
- “Materialen banaketa eta eskabideak”: sistema hori erabiliz, jendeak gogoken dituen materialak zeintzuk diren jakin ahal izango dugu; horrela, horien eraginkortasunaren arrazoiak ezagututa, arrazoiok gerora sortu beharreko materialetara aplikatu ahal izango dira. Patronatuak materialen banaketa erregistratuko du.

6. Sektoreen Heziketa Teknikorako Programa

6.1. Sarrera

Sektoreen Heziketa Teknikorako Programaren helburu nagusia lurraldean diharduten gizarte nahiz ekonomi taldeengan jardutea da, taldeon jarduerak ingurugiroan izan dezakeen eraginari dagokionez.

Jarduera teknikoek eta lanbide jarduerak, euren berezko ezaugarriak direla eta, hezkuntza tratamendu berezia behar dute; izan ere, agente horiek egiten duten jardueretariko bakoitzak eragin zehatza eta zuzena dauka, bai baliabide naturaletan eta bai baliabideok garapen eutsigarriko elementutzat behar duten kontserbazioean.

Heziketa programaren barruan jarduketa batzuk ezarriko dira, Biosfera Erreserban diharduten sektore sozioekonomikoetan eragiteko; egin-eginean ere, irakasle eta ikerlarien prestakuntzari loturiko programak Ingurugiro Heziketari buruzko programa zehatzetan aztertuko dira (Heziketaren eta Ikerketa nahiz Lankidetzaren Zientifikoaren arloetan, hurrenez hurren).

Ingurugiro Heziketa lurralde zehatz batean inplikaturiko sektore sozioekonomikoetan sartzeko praktikotasun osagai oinarrizkoa eduki behar du, sektore bakoitzak egindako lanean. Programa honek izan behar duen alde praktikoak aukera eman beharko du Ingurugiro Heziketari buruzko alderdi orokorrak lantzeko, sektore bakoitzari dagozkion alderdi zehatzak ahaztu barik; alderdi orokor horiek jarduera bakoitzari dagokiona baino eremu askoz ere zabalagoa izan beharko dute.

Sektoreen Heziketa Teknikorako Programaren jarduketak (hemen zehaztu direnak) bat datoz programaren jarduketa bereziekin. Horrek esan nahi du Ingurugiro Heziketako Programetan (Heziketa, Informazio zein Zabalkundeari eta Ikerketa nahiz Lankidetzaren Zientifikoari loturiko programak) zehazturiko jarduketa asko Biosfera Erreserbako sektore sozioekonomikoei aplikatu ahal zaizkiela.

Programa hau berari aplikatzeko moduko helburu zehatz batzuetan oinarrituta deskribatzen da; helburuok baliozkoak dira inplikaturiko sektore guztietarako. Sekto-

re bakoitzak, bere ezugarri berezien arabera, helburu zehatz batzuk ere baditu, deskribaturiko segmentu sozioekonomikora aplikatzeko modukoak.

6.2. Helburu zehatzak

1. Eutsigarritasun kontzeptua sartzea, Urdaibaiko Biosfera Erreserbako sektore sozioekonomikoetan.
2. Garapen eta kontserbazio kontzeptuak bateratzea sektoreotan, produkzio prozesuen hobekuntza sustatuta, Ingurugiroaren errespetuaren barruan.
3. Bizitza kalitatearen eta Ingurugiro kontserbazioaren arteko lotura zabaltzea.
4. Urdaibaiko Biosfera Erreserban uraren eta lurren zikloen kontserbazioak duen garrantziari buruz hezteak.
5. Heziketa-jarduketak Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren eremuan integratzea.
6. Erabili eta Kudeatzeari buruzko Egitamu Gidaria ezagutaraztea, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren kudeaketan inplikaturiko gizarte sektoreei.
7. Administrazio langileak nahiz lurraldea kudeatzen dutenak eta sektore sozioekonomikoak Ingurugiro Heziketako prozesuetan integratzea.
8. Biosfera Erreserbari buruzko informazio-trukea sustatzea, Patronatuaren eta agente sozioekonomikoen artean.
9. Produkzio prozesuetan (lehen, bigarren eta hirugarren sektoreak) egindako ingurugiro hobekuntzen berri ematea.

6.3. Eragin beharreko sektore sozioekonomikoen arabeko banaketa

- Lehen Sektorea:
 - Nekazaritza-Abeltzaintza-Baso sektorea.
 - Nekazaritza azpisektorea.
 - Abeltzaintza azpisektorea.
 - Baso azpisektorea.
 - Arrantza sektorea.
 - Baxurako arrantzaren eta arrantza tradizionalaren azpisektorea.

- Bigarren sektorea:
 - Arrantza produktuen manufaktura-enpresak.
 - Eraikuntza sektorea.
 - Sektore siderometalurgikoa.
- Hirugarren Sektorea:
 - Turismoa.
 - Ostalaritza azpisektorea.
 - Hotelak eta Landaturismoa.
 - Turismo jardueren sustatzaileak.
 - Merkataritzakoak.
 - Elikadura azpisektorea.
 - Zerbitzuak.
 - Administrazioa.

6.3.1. Sektore bakoitzaren Ingurugiro Heziketari buruzko proposamenen banakapena.

Programa honetan garatu nahi diren jarduketan planteamenduari dagokionez, bi destinatari nagusi ezarriko ditugu: batetik, jarduera planteatu, diseinatu eta planifikatzen dutenak; bestetik, berriz, jarduera burutzen dutenak. Mugaketa horren bidez, jarduera batek izan ditzakeen erantzukizun eta protagonismo gradu desberdinak nabarmendu nahi dira. Halaber, lurraldean diharduen elementuetariko bakoitzak protagonismo desberdina dauka, erabakiak hartzeko orduan; beraz, ingurugiro heziketaren ikuspegitik, elementu bakoitzak tratamendu berezia beharko du.

Ondoren aurkezten den eskeman ez da jarduketa xeheaturik azaltzen: eredu-ko helburuen bloke bat azaltzen da sektore bakoitzerako.

6.3.1.1. Lehen sektorea

- Nekazaritza jarduerak:

Nekazaritza eta abeltzaintzako jardueren sektorean, ingurugiro heziketako programa artikulatzeko elementu nagusitzat, Nekazaritza ekologikoa normalizatu eta arautzeko ezarri diren oinarriak finkatuko ditugu; oinarriok Nekazaritza Ekologikoa Arautzeko Kontseiluan (NEAK) ezarrita daude.

Jarduketa horien helburu nagusia Ingurugiroa errespetatu eta kudeatzea da, kalitate goreneko elikagaiak lortu eta sortzen direnean; horretarako, teknika

batzuk aplikatuko dira nekazaritza produkzioaren eta baliabide naturalen kontserbazioa eta eutsigarritasuna bultzatzeko, baina nekazaritza jarduerari kalterik egin gabe.

Helburuak: sektore honen Ingurugiro Heziketarako, oinarrizko helburuok proposatzen ditugu:

- Nekazaritzako hondakinak kudeatzea, erreziklatzea eta ongarri berde bihurtzea.
 - Oinarrizko ekologiari buruzko kontzeptuak ematea, nekazaritzako biosistema ulertzeko; era berean, nekazaria trebatzea soluzio ekologikoak planteatu ahal izateko nekazaritzako arazoak.
 - Lehentasuna ematea uraren eta lurzoruen zikloak ezagutze-ari; izan ere, baliabide zaurkorrek dira nekazaritza eta abeltzaintzako produkzioan. Ziklo hidrikoari eustea.
 - Bioaniztasunaren eta produktibitatearen artean dagoen bateragarritasuna ezartzea. Eredu bateragarriak finkatzea nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapenetan.
 - Izurriteen eta eritasunen kontrol ekologikoa egitea.
 - Teknika eutsigarriak erabiltzea baso-ateratzeak egitean.
- Arrantza azpisektorea (Baxura):

Helburuak:

- Arrantzaren ondoriozko hondakinak kudeatzea; gero, hondakin horiek bildu eta erreziklatzea (hondakin solidoak, gasolioak, olioak, zaborrak, etab.).
- Itsasoko ekologiari buruzko oinarrizko kontzeptuetan hezteak; kontzeptu horiek arrantzari eta itsaskiei loturiko baliabideak kostaldean kontserbatzeari buruzkoak dira.
- Arrantza arte desberdinek (inguraketa, tertza, kanabera, etab.) ingurugiroan duten eragina adieraztea.
- Selektiboak ez diren arteekin harrapaturiko espezie babestuen katalogoa jakinaraztea.
- Jolasaldiko untzien jabeei, itsasbazterrean egiten diren harrapaketen berri ematea, baita horiek erosten dituzten sukaldariei ere.
- Sare pelagikoetan edo untzien gainaldean pase-garaian agertzen diren itsasoko hegaztiei buruz jabeaztea.

- Higiene metodo eta ohiturak sortzea baxurako untzietan (ez dute espaziorik eta edateko urik).

6.3.1.2. *Bigarren sektorea*

Ingurugiroa zaintzera bideraturiko ekintzak egiteko estrategia nagusitzat, ezinbestekoa da Europako arau eta zuzentarauak aplikatzea. Arau eta zuzentaru horiek, produkzio prozesuei dagokienez, ingurugiroaren babesa jotzen dute lehiakortasuna hobetzeko oinarritzko elementutzat. Zuzentaru horien artean, aipatzekoak dira ontzi eta enbalaketei buruzko Europako zuzentaruak, ekoetiketatua, ekoauditoretzak, kontrol integraturako eta kutsadura aurreikusteko zuzentaruak, hondakinei buruzko Europako katalogoa, etab.

Horri dagokionez, ekoizpen prozesuetan erantzukizun eta garrantzi handiena (erabakiak hartzean) duten estamentuak hezi beharko dira. Horretarako, beharrezkoa izango da gremio eta enpresa elkarten lankidetzaz izatea; izan ere, elkarte horiek txikiagotu egin beharko dituzte euren jarduerak ingurunean sorturiko eragin kaltegarriak.

Hori dela eta, atal honetan proposaturiko gairik gehienak industri jardueren kudeatzaile, planifikatzaile, diseinatzaile eta betetzaleei zuzenduta daude.

Helburuak:

- Industri jardueren ondoriozko hondakinen kudeaketa eta erreziklapena. Uraren nahiz atmosferaren kutsadura, kutsadura akustikoa zein bisuala, etab.
- Lan osasuna. Lan inguruaren osasuna hobetzeko neurriak. Neurri zuzentzaileak jarduera arriskutsuetan.

6.3.1.3. *Hirugarren sektorea*

Hirugarren sektorea oso dibertsifikatua da eta horrek jarduketa oso zehatz batzuk eragiten ditu azpisektore bakoitzean. Horrenbestez, atal honetan, euren garrantzi sozioekonomikoa dela-eta adierazgarrienak diren azpisektoreak baino ez ditugu aipatuko.

- Turismo azpisektorea. Turismoari loturiko jarduerak
 - Ostalaritza Tradizionala: ostalaritza azpisektorea bisitarien eta tokiko biztanleen erreferentzia nagusienetarikoa izaten da, aisia eta giza harremanak gozatzeko orduan. Azpisektore honen barruan, zaharbertzaileak, hotelak, kanpinak eta abar sartzen dira.
 - Hotelak eta landaturismoak: horiek kudeatzeko ardura duten pertsonak hezi beharko dira, azpisektore hori ekonomi sektoretzat mantentzeko, eta turismo tradizionalaren sektoreak duen joera aldatzeko: ingurugiroarekin erres-

petu handiagoa duen turismoa bultzatu beharko da, eskualdeko baliabideak (kultur nahiz natur mailakoak) helburu dituen turismoa.

- Turismo jardueren sustatzaileak: zerbitzuen sektoreak dituen jardueren barruan, turismo jarduerak eragin handia dauka ingurugiroan, nazioarteko irismena eta bizitasun handia baitauka. Hori dela eta, beharrezkoa da naturan egiteko diren turismo antolatuko jardueren eta kirol jardueren sustatzaileak heztea. Horrela, ingurunearekiko errespetua duen eredu eutsigarri baterantz bideratuko da sektore hori; eredu horren helburua Urdaibaiko Biosfera Erreserbako baliabideak (natur eta kultur mailakoak) aprobetxatu eta artatzea izango da.

Helburuak:

- Hotelen jabeek lurraldearen ezagupen integrala izatea.
 - Turismo jarduera tradizionalak ingurunea eta bertako natur baliabideak ezagutzera eta artatzera bideratzea.
 - Turismo aktiboko jarduerak inguru naturalean antolatzeko ereduak ezartzea.
- Lanbide liberalen azpisektorea

Helburua: ingurugiro Heziketaren bidez, eragina izatea Biosfera Erreserbaren legezko eremuan diharduten lanbide sektore zehatzetan (arkitektoak, abokatuak, ekonomilariak, soziologoak, etab.).

- Administrazioaren azpisektorea

Helburuak:

- Administrazio teknikariak trebatzea, udalak ingurugiroa kudeatzeko.
 - Urdaibaiko Biosfera Erreserban inplikaturiko ingurugiro zaintzako zerbitzuak ingurugiro baloreetan heztea.
- Komunikabideen azpisektorea:

komunikabideei buruzko heziketa-jarduerak egitea ezinbestekoa da. Izan ere, halako jarduerak aukera ematen dute ingurugiroari eta Biosfera Erreserbari buruz komunikabideetan zabaltzen den informazioa hobeto aztertu eta ebaluatzeko. Komunikatzaileen heziketak, gainera, ingurugiro mezuen kalitatea hobetzeko bidea emango du (kontutan izan behar da mezu horien menpe dagoela, neurri handi batean, gizartearen sentsibilizazioa).

Helburua: komunikabideetako profesionari eta erantzuleak heztea, Biosfera Erreserbaren kontzeptuari eta ingurugiroari buruz.

6.4. Jarduteko irizpideak

- Lanbide Heziketa Teknikoak agerian jarriko ditu gizakiaren eta inguru fisiko, sozial eta kulturalaren arteko loturak.
- Sektoreen Heziketa Teknikoak ez du programa zehatz baten arazoak bakarrik aztertuko; ingurugiro heziketa orokorra eskainiko du kategoria guztietan.
- Sektoreen Heziketa Teknikoan inplikaturiko agente guztiek erraztasunak izango dituzte; gainera, beharrezko informazioa eta agiriak lortuko dituzte Ingurugiro Hezkuntzari buruz, buruheziketa suspertu ahal izateko.
- Sektoreen Heziketa Teknikorako Programan, ingurugiro mezuak errazak izango dira, anbiguotasunik bakoak, eta sektore bakoitzari egokituak. Horri dago-kionez, heziketa-materialek tratamendu didaktiko egokia izan beharko dute.
- Sektoreen Heziketa Teknikorako Programak Ingurugiro Heziketa izango du beti kontutan, Urdaibaiko Biosfera Erreserba garatzearen ondoriozko lanbide berriak sortzean.

6.5. Jarduketan katalogoa

- Antolaketa:
 - 1. jarduketa: sektoreen heziketarako unitatea.
- Material didaktikoak:
 - 2. jarduketa: eskuliburu praktikoak.
- Jardunaldiak:
 - 3. jarduketa: jardunaldiak, topaketak eta mintegiak.
- Heziketa ikastaroak:
 - 4. jarduketa: heziketa ikastaroak.
 - 5. jarduketa: teknikari arruntentzako heziketa teknikoak (Ingurugiro osasuna —II eta III moduluak—).
- Gizartea dinamizatzeko jarduerak:
 - 6. jarduketa: Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Gizarte Agenteen trukea.

6.6. Jarduketan deskripzioa

Sektoreen heziketa teknikorako programa Patronatuko talde teknikoaren lanean oinarrituz eratzen da. Lan hori Sektoreen heziketarako unitatetik sustatzen da (Lankidetza Kontseiluaren lan taldea).

Unitate tekniko horrek bere gain hartuko ditu Biosfera Erreserbako heziketa lanak; baina, lehenengo, elkarrizketa eta eztabaidak egin beharko dira sektore sozioekonomikoekin, euren heziketa beharrianak zehazteko.

Programa honetan azaltzen diren gainerako jarduketak honelaxe antolatuta daude:

- eskuliburu praktikoak,
- heziketa ikastaroak,
- jardunaldiak, topaketak eta mintegiak,
- gizartea dinamizatzeko jarduerak.

Eskuliburu praktikoen artean, interesgarritzat jotzen dira baliabide naturalak hobeto kudeatzeko balio dutenak. Ondoko eskuliburuak proposatzen dira:

- Nekazaritza ekologikoari buruzko eskuliburua.
- Baserri inguruetan suteak itzaltzeko azkar jarduteari buruzko eskuliburua.
- Laneko ingurugiro osasunari buruzko eskuliburua.

Heziketa ikastaroak ere proposatzen dira sektore zehatz batzuk trebatzeko. Izan ere, euren garrantzia dela eta, sektoreok heziketa berezia behar dute euren jarduera eraginkorragoa izateko. Ondoko ikastaroak proposatzen dira:

- Komunikazio arduradunen heziketa, Urdaibaiko Biosfera Erreserban.
- Ingurugiro zaintzako zerbitzuen heziketa; zerbitzuok eskumenak izango dituzte Urdaibaiko Biosfera Erreserban.
- Ingurugiro Heziketa eta lurraldearen ezagupena (ostalari, hotelari eta landaturismoetarako).
- Udal kudeaketa eremu babestuetan.

Patronatuak ingurugiro arloko teknikari arrunten heziketa proposatu beharko du; heziketa hori “Ingurugiro Osasuna” (IO3) moduluen bidez egingo da.

Proposatzen ditugun “jardunaldi, topaketa eta mintegien” artean, ondokoak aipa daitezke:

- Biosfera Erreserbak, horiek kudeatzeko giltzarriak.
- Arrantza baliabideen kudeaketa eta eutsigarritasuna.
- Nekazaritza ekologikoa eta baso ustiapen eutsigarria.

Gizartea dinamizatzeko jardueratzat, “Urdaibaiko Gizarte Agenteen trukeak” ezartzen ditugu beste Biosfera Erreserba batzuekin; Erreserbaok jarduketa komunak egin beharko dituzte, edota euren jarduerarekin loturaren bat duten jarduketak.

6.7. Jarduketak ezartzeko gidalerroak

Sektoreen heziketa teknikorako programaren barruan sartu ditugun jarduketak programa horretako jarduketa zehatzei dagozkio; horrek ez du esan nahi beste programa batzuetan (Ingurugiro Heziketa, Informazioa eta Zabalkundea, eta Ikerketa eta Lankidetzat Zientifikoa) zehazturiko jarduketa asko Biosfera Erreserbaren sektore sozioekonomiko guztietara ezin aplikatu daitezkeenik.

Nolanahi ere, Patronatuko talde teknikoaren lan egitamuaren barruan, sektoreen ingurugiro heziketarako unitate edo arlo bat izatea oso puntu interesgarria da. Izan ere, unitate horrek ingurugiro heziketako jarduketak (ondoren zehazten direnak) dinamizatu, koordinatu eta ebaluatuko ditu; gainera, "Erabilera Egitamua Ingurugiro Interpretazio, Ikerketa eta Heziketarako Urdaibaiko Biosfera Erreserban" izeneko egitamuaren barruko programetatik datozen jarduketaren artean, Sektoreen Heziketa Teknikorako Programan aplikatzeko modukoak aukeratuko ditu.

Sektoreen Heziketa Teknikorako Programa unitate horretatik garaturiko lan teknikoaren inguruan egituratuko da; unitate horrek Urdaibaiko Biosfera Erreserbako ingurugiro heziketako jarduketak dinamizatu, koordinatu eta ebaluatzeko ardura izango du.

Erabilera Egitamu hau onetsi eta urte beteko gehieneko epean burutzeko, ondoko jarduketek lehentasuna izango dute:

- Lehenengo eta behin, ingurugiro heziketako ikastaroei buruzko jarduketa burutuko da. Ikastaro guztiek izango dute lehentasuna, eta bateragarriak izango dira; beraz, aldi berean garatzeko modukoak izango dira.
- Bigarrenez, zenbait Biosfera Erreserbatako gizarte agenteen trukeak kudeatuko dira, Erabilera Egitamu honetan izandako esperientziak konparatu eta aberasteko. Trukerako, berriz, heziketa ikastaro berezietan parte hartu duten taldeak proposatzen dira.
- Lehenengo fase honetan, jardunaldi, mintegi eta topaketen ziklo bat ere planteatu behar da, Lankidetzat Kontseiluan ordezkaturiko gizarte agenteek erakutsitako interesaren arabera (lan taldeak adituekin, sektoreei zuzendutako jardunaldiak, etab.). Jarduera horiek orokorrean aztertu beharko dira, eta kontutan izan beharko dira Erabilera Egitamu hau osatzen duten programen barruko segmentuetan egiten diren jarduerak. Lehentasuna izango dute nekazaritza ekologikoari eta basoen ustiapen eutsigarriari buruzko gaiak; Biosfera Erreserba kudeatzearen ondoriozko arazoei buruzko gaia ere lehentasunezkoa izango da.

Jardunaldi eta mintegietan zehazturiko jarduketak osatzeko, erabilerari buruzko eskuliburu bereziak egitea planteatzen dugu bigarren fase batean; eskuliburu horiek lehen deskribaturiko gaiak sakonduko dituzte, ikasitako kontzeptuak gauzatuta sustatu nahi diren oinarrizko kontzeptuak aurkeztu eta zehaztu ondoren. Argitalpen horiek egiteko, kontutan izango da Erabilera Egitamu honen programak indarrean jaritzean egingo diren argitalpenen osotasuna.

Jarduketa horiek garatu ondoren, planteamendu eta mekanismoak erabat zehatz eta dinamikoak izango dira 2000. urterako; gainera, gauza izango dira bidean dauden jarduketak ebaluatzeko, eta hurrengo urteetan Urdaibaiko Biosfera Erreserban Ingu-rugiro Heziketaren arloan egongo diren beharrianak sumatzeko, sektore sozioekonomikoen beharrianak kontutan hartuta.

6.8. Ebaluazio sistemak

Sektoreen heziketa teknikorako programak ebaluazioa egiteko duen oinarrizko elementua hauxe da: erabiltzaileek hobekuntzak izatea lan eta lanbide praktikan. Lehenengo fase batean, egiten diren jarduketak ebaluatu behar dira; gero, sektoreek euren heziketako jardueretan duten inplikazio maila baloratuko da. Ebaluazio tekniko guztiak Patronatuari eta Lankidetzaren Kontseiluari jakinarazi beharko zaizkie.

Ebaluaziorako, bitarteko egoki guztiak erabiliko dira (sektoreen araberrako ikerketa soziologikoak, jardueren memoriak, etab.); nolana ere, taldeek eurek egindako balorazioa eta erakutsitako poza izango dira sistemarik fidagarrienak.

7. Ikastetxeetako ingurugiro heziketarako programa

7.1. Sarrera

Ikastetxeetako Ingurugiro Heziketarako Programak hezkuntza arautuko prozesuen menpe dauden biztanleei zuzenduta daude; hezkuntza arautu horrek eskola jarduera Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren lurraldean garatzen duten biztanleak ditu helburu; izan ere, horien ingurugiro heziketa oinarrizkoa da Erabilera Egitamu honen Helburu Nagusiak lortzeko eta lurraldea kudeatzeko.

Programaren destinatari nagusiak hauexek dira:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak, ziklo eta eredu guztietakoak; Urdaibaiko Biosfera Erreserbako ikastetxeetakoak nahiz kanpotik etorritakoak izan daitezke.
- Batxilergoko eta lanbide moduluetaiko ikasleak.
- Urdaibaiko ikastetxeetako irakasleak.

Nolanahi ere, Programa honetan deskribaturiko jarduketak ekintza markoak dira, hezkuntza arloko maila guztietan aplikatzeko modukoak. Horietariko batzuetan, aditzera ematen da (jarduketaren ezaugarrien bidez) zein hezkuntza segmentutan eragin behar den zuzenen.

Programa garatzean, Patronatuak Inguruarekiko Irakasbideen Hezkuntza eta Ikerketarako Ikastegia (IIHII/CEIDA) erabiliko du zerbitzu teknikotzat; zentro horrek Urdaibaiko Biosfera Erreserban hezkuntzaren arloan garatzen diren Ingurugiro Hezkuntzako jarduketa guztiak koordinatu, dinamizatu eta ebaluatuko ditu. Beraren ezaugarriak direla eta, zentro hori Urdaibaiko Biosfera Erreserbako irakasleak hezteko elementu nagusia izango da.

Gogoratu beharra dago Urdaibaien Ingurugiro Heziketako ekipamendu autonomo ugari dagoela (Baserri-eskolak, Natura Gidak, Itsasoaren Ikasgela, Eskola Esperimentaziorako Zentroa, Ingurugiro Heziketa taldeak); gainera, ekipamenduok Ingu-

rugiro Heziketari buruzko programa bereziak dituzte. Beraz, Egitamua garatzean, ekipamendu horiek laguntza eskaini beharko dute, diseinatzen diren jarduketak gauzatzeko.

7.2. Helburu zehatzak

1. Ingurugiro Heziketako ekimenak eta jarduerak koordinatu, dinamizatu eta sustatzea, Urdaibaiko Biosfera Erreserban.
2. Eskola komunitate osoa eta, babez ere, irakasleak oinarrizko agentetzat inplikatzea, Ingurugiro Heziketako proiektuak garatzeko. Horrek aukera eman-
go du Biosfera Erreserba hobeto ezagutzeko eta inguruaren kontserbazioan
oinarrituriko garapen baten aldeko jarrerak sustatzeko, beti ere partaidetza
bultzaturik.
3. Irakaslearen heziketa bultzatzea, Ingurugiro Hezkuntzako gaietan.
4. Ingurugiro Hezkuntza etapa guztietan sartzea (lanbide heziketan eta hel-
duen hezkuntzan ere bai), ikastetxeetako curriculumen, jardueren eta agi-
rien zeharkako lerrotzat.
5. Ikasleak trebatzea edota bideak sortzea irakasleon partaidetzarako, inguru-
giro kontserbazioari buruzko gaietan.
6. Ikasleen gurasoak Ingurugiro Heziketako prozesuetan sartzea.
7. Ikastetxearen ingurunea ezagutaraztea, ingurugiro jarduketak egiteko oina-
rrizko elementutzat; horretarako, bertako baliabideak eta Urdaibaien Inguru-
giro Heziketarako dauden ekipamenduak erabiliko dira.
8. Ingurugiro baliabideak kontserbatzeko ardura duen giza jardueraren balioa
zabaltzea; horretarako, garapen eutsigarriari loturiko alderdiak garatu be-
harko dira.
9. Urdaibaiko natur eta kultur baloreak ikertzea, baita Biosfera Erreserbaren
ideia ere; horrela, ikasleak hobeto identifikatuko dira euren inguruarekin.
10. Hezkuntza arloa Patronatuak sorturiko jardueretan integratzea; Patronatua-
ren eginkizuna eta gizartean duen agerpena zabaltzea.

7.3. Jarduteko irizpideak

Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Ingurugiro Heziketako baliabideak ahalik eta
hoberen aprobetxatzeko, irizpide batzuk azaltzen ditugu. Irizpideok Biosfera Erreser-

bako Hezkuntza prozesuetan inplikaturiko gizarte sektoreen hartukizunean oinarritzen dira, eta kontutan hartu beharko ditugu jarduketa egokiak betearazteko orduan.

- Urdaibaiko ingurugiro arazoek ikuspegi orokorra bultzatu behar da, hezkuntza prozesu etengabe baten bidez.
- Diseinaturiko jarduketak gauzatzean, kontutan izan beharko dira orain arte egindako jarduerak, baita Biosfera Erreserban dauden Ingurugiro Heziketako ekipamenduak ere; gainera, tokiko baliabideak baloratu beharko dira.
- Bertako irakasleen heziketa, sentsibilizazioa eta inplikazioa abiapuntu izan beharko da, ikastetxeetako Ingurugiro Heziketako prozesuan.
- Material guztiak Ingurugiro Heziketaren ikuspegitik gertutuko dira. Ingurunea hobetzeko eta hobetze horretan parte hartzeko beharrezanaz jabeaz behar da jendea. Halaber, kontutan izan beharko dira ikertzeko nahiz parte hartzeko metodologiak ere; metodologia horiek aintzat hartu beharko dituzte ikasleen interesak eta ezagupenak.
- Naturaren gozamen integrala aisia igarotzeko eratzat proposatu beharko zaie Biosfera Erreserbako ikasleei.
- Eskola komunitateko talde guztien lankidetzak eta laguntza bultzatu beharko dira; era berean, Biosfera Erreserbako talde eta erakundeekiko lankidetzak ere sustatuko da.
- Ebaluaziorako mekanismoak ezarri behar dira jarduketak guztietan; horrela, ezarritako helburuak (helburu orokorrak nahiz zehatzak) zein neurritan lortzen diren jakin ahal izango dugu.

7.4. Jarduketaren katalogoa

- Koordinazioa:
 - 1. jarduketa: Ingurugiro Heziketako Programaren koordinazio unitatea.
- Ingurugiro Heziketako material didaktikoak:
 - 2. jarduketa: Lagindegia Berdea.
 - 3. jarduketa: Ingurugiro Heziketako unitate didaktikoak.
 - 4. jarduketa: Bagoi Berdea.
- Irakasleak Ingurugiro Heziketako gaietan trebatzeko jarduerak:
 - 5. jarduketa: ikastaroak, jardunaldiak, mintegiak,...
- Ibilbideak:
 - 6. jarduketa: inork gidaturiko ibilbideak.
 - 7. jarduketa: norberak gidaturiko ibilbideak: lehen sektoreko bideak.

- Eskolen dinamizaziorako kanpainak:
 - 8. jarduketa: eskola elkartrukeak.
 - 9. jarduketa: urteroko jabetze kanpainak, elementu enblematikoei edota gai orokorreari buruzkoak.
- Lankidetzaren jarduerak:
 - 10. jarduketa: naturalista gazteen taldeak —Naturzaleak—.
 - 11. jarduketa: bolondresak erakartzeko kanpainak.
 - 12. jarduketa: gurasoen inplikazioa: guraso eta ikasleen egonaldi mistoak baserri-eskoletan eta Naturaren Ikasgelan.
- Ekipamenduan:
 - 13. jarduketa: Natur Ikasgela.

7.5. Jarduketaren deskripzioa

Ikastetxeetako Ingurugiro Heziketarako Programa Patronatuak sustatuko du, Ingurugiro Heziketako Egitamuaaren Koordinazio Unitatearen bidez; unitate hori *Ingurugiroarekiko Irakasbideen Hezkuntza eta Ikerketarako Ikastegia (IIHII/CEIDA)* koordinatuko da. Unitate horrek programaren jarduketak koordinatu, dinamizatu eta ebaluatuko ditu; gainera, irakasleen hezkuntzaz arduratuko da eta hori lehentasunezko eginkizuna da.

Garrantzitsua da lurraldean lan egiten duten ekipamendu, erakunde, zentro, talde eta abarrekin lankidetzaren eta koordinazioa izatea, materialak, proiektuak eta ekipamendu mota berriak egiteko.

Ekipamendu osagarri berriztat, “Natur Ikasgela” bat jardunean ipintzeko aukera aztertuko da; ikasgela hori lurraldean dauden zentrotan lankidetzarekin sustatu beharko da. Ekipamendu horren helburua naturaren ezagupen orokorragoa garatzea da, eta Biosfera Erreserban dauden ekipamenduen jardueraren osatzeko.

Partehartze kolektiboa eta esperientzi trukea bultzatzeko moduko gaiak eta jarduerak sustatu beharko dira; horrela, nolabaiteko talde identitate lortuko da, ekipamendu hori Urdaibaiko Biosfera Erreserbarekin lotuta. Horretarako, orain ere egiten diren jarduerak garatuko dira, esaterako, “Azterkosta” (itsasertzaren egoerari buruzko ikerketa eta datu bilketa), “Ibaialde” (ibaian azterketa) eta “Eskola ekologikoa” (zentrotan ingurugiro koherentziaren azterketa; zentroak hobetzeko jarduerak diseinatzea eta jardunean jartzea). Era berean, interes orokorreko gaiei buruzko proiektu edo kanpainak diseinatuko dira, urari buruzkoak adibidez.

Material didaktiko batzuk prestatu behar dira Ingurugiro Heziketari buruzko jarduerak sustatzeko Urdaibaian; jarduera horiek orain dauden materialetan, abian jarritako esperientzietan eta garatzeko moduko proiektuetan oinarrituta egongo dira. Interesgarria izango litzateke Biosfera Erreserban lan egiten duten talde, zentro eta ekipamenduen laguntza izatea.

Programa garatzeko, ondoko materialez zuzkitu beharko da hezkuntza sektorea:

- Biosfera Erreserbako ikasle eta irakasleentzat, “Ingurugiro Hezkuntzako Unitate Didaktikoak” prestatzea proposatzen da; unitate horiek Urdaibaiko lurraldeari buruzko alderdi desberdinak jorratuko dituzte, eta oraingo materialetan eta esperientzietan oinarrituta egongo dira. Unitateok, gainera, argitaratu baino lehen aplikatu beharko dira.
- Biosfera erreserbatik kanpoko ikasle eta irakasleentzako materiala: Urdaibairako joaten den zentro kopuru handia kontutan izanik, material orokorra prestatu behar da, Urdaibairi buruzko sentsibilizazioa bultzatzeko, gaia ezagutzera emanda eta jendea horretaz jabearazita.
- Lehenengo fase batean hezkuntza mundura (batez ere Biosfera Erreserbatik kanpokora) zuzendutako beste baliabide didaktiko bat (gero edonork erabili ahal izango du) “Bagoi Berdea” da. Material hori entzun egiten da eta tren baten bagoian instalatu nahi dugu; berorrekin batera, geltokitik geltokirako ibilbideak egingo dira, eta unitate didaktiko errazak eta lan koadernoak ere banatuko ditugu.
- Bai material horiek eta bai programa honetan erabiltzeko moduko beste material batzuek (beste zenbait programatakoak) “Lagindegi berdea” osatuko dute. Lagindegi hori jarduketan eta baliabideen katalogoa da, ikastetxeetako Ingurugiro Heziketarako. Material horrek ikasturtean zeharko jarduerak planifikatzeko aukera emango die irakasleei; halaber, informazioa eskainiko die jarduera horietan erabil ditzaketen baliabideei buruz.
- Beste baliabide bat ibilbideak dira. Programa honetan, Informazio eta Zabal-kunde Programan proposaturiko ibilbideak ezezik (norberak gidaturikoak, eta ikastetxeek erabiltzeko modukoak), “Inork gidaturiko ibilbideak” eta “Lehen sektoreko bideak” ere proposatzen dira interpretaziorako baliabidetzat, Urdaibaiko Biosfera Erreserbako zentroei edota lurralde horren bisitariei begira.

Norberak gidaturiko ibilbideak Urdaibaiko ekosistema guztietatik egingo dira; ibilbideok Patronatuaren kudeaketa behar dute eta jendearen heziketara bideratuta daude.

Lehen sektoreko bideak ere alde horretako irakasleen heziketarako dira. Ibilbide horien helburua lehen sektoreko jardueren ezaugarriak aztertzea da, lurraldeko ingurugiro baloreak kudeatu eta artatzeari dagokionez.

Programak “jardunaldi, mintegi eta topaketa” batzuk ere ezartzen ditu, Ingurugiro Heziketa, Didaktika, Pedagogia eta abarri buruzko kontzeptuak bateratu eta eztabaidatzeko. jardunaldi, mintegi eta topaketa horiek sumaturiko beharriaren arabera egingo dira, eta biztanleriaren beste segmentu batzuetarako programatu diren jardueren bidez koordinatuko dira. Halaber “Irakasleen heziketarako ikastaroak” ere proposatzen dira (oinarrizko heziketarako nahiz heziketa sakonago baterako), hezitzailea trebatzeko Ingurugiro Heziketako lanetan; ahal den neurrian, orain dauden egiturak erabiliko dira: IIHII/CEIDA, Ingurugiroaren Esperimentazio eta Ikerketa Didaktikorako Zentroak, Ingurugiro Hezkuntzako Ekipamenduak, etab.

Programak, halaber, dinamizatorako heziketa kanpainak ere zehaztuko ditu. Kanpaina horiek “Urteroko jabetze kanpainak” izango dira batez ere, “elementu emblematikoei buruzkoak”, edota Biosfera Erreserbako zentroak bateratu ahal dituzten gai edo proiektuei buruzkoak; horrela, ikasleen partehartzea bultzatuko da, kontserbazio eta zabalkunde proiektuetan, eta hezkuntza arloan sorturiko ekimenak (Ingurugiro Heziketari buruzkoak) gizarte osora hedatuko dira.

Dinamizatorako elementutzat, “Eskola elkartrukeak” ere erabiliko dira.

Ikasleek ingurugiroaren kontserbazioan inplikazio handiagoa izateko, lankidetzaz jarduerak batzuk proposatzen dira; jarduera horien helburua hau da: inguru naturala hobetzea, natura ezagutu nahiz artatzea, eta ikasle eta gurasoen arteko elkarbizitza bultzatzea, Ingurugiro Heziketako esperientzietan. Horri dagokionez, hiru jarduketak proposatu dira:

- “Bolondresak erakartzeko kanpainak” egitea; Patronatuak sustatuko ditu, dirulaguntza batzuk emanda. Horien helburua ikasleek lurraldeko balore naturalen kontserbazio eta babesean parte hartzea da, elkarte, ikastetxe eta abarren bidez.
- “Naturalista Gazteen Taldeak —Naturzaleak”— sustatzea, Urdaibaiko gazteak aisialdian naturara hurbiltzeko.
- Bestalde, ezinbestekoa da ikasleen gurasoak inplikatzea. Horretarako, harremanak finkatu eta inplikazioa errazten duten jarduerak gauzatu beharko dira, besteak beste hauex: denen arteko irteerak, guraso eta ikasleen egonaldi mistoak, Urdaibaiko Ingurugiro Heziketako ekipamenduetan.

Jarduera horien helburua, Ikerketa eta Lankidetzaz Zientifikorako Programatik planteaturiko aukeraren arabera, hau da: Urdaibai Koordinatzailetzat eta Ingurugiro Hezkuntzako MaB-Espainia Programako egoitzatzat gaitu eta egituratzea.

7.6. Jarduketak ezartzeko gidalerroak

Patronatuaren menpeko koordinazio unitate bat egotea (IIHII/CEIDARI lotuta) jarduerak garatu eta dinamizatzeko: horixe da ikastetxeetako ingurugiro hezkuntza sustatzeko oinarria.

Programa betearaztean, lehenetsutako jarduketa batzuk garatuko dira fase bitan (bata 2000. urtera arte eta bestea 2007. urtetik aurrera).

“Lehenengo fasean” Biosfera Erreserbari ikastetxeetako jardueretarako ezinbesteko baliabideez zuzkitzeko aukera ematen dioten jarduketak garatuko dira. Horrela, alde horretako zentroyen lankidetzaz eta laguntzarekin, beharrezko unitate guztiak prestatuko dira, eta materialak gertutuko dira Urdaibaitik kanpoko zentroetarako.

Halaber, ibilbideetarako eta Lehen Sektorereko Bideetarako materiala prestatuko da. Gero, Lagindegia berdearen diseinuari ekingo zaio; horrek, materialok ezezik, beharrezko informazio guztia ere eskainiko du, Ingurugiro Heziketari buruzko proiektuak garatzeko, Urdaibaiko Biosfera Erreserban.

Era berean, lehenengo fase honetan irakasleen heziketarako ikastaroak egingo dira, eta Ingurugiro Heziketari buruzko jardunaldi eta mintegiak antolatuko dira, jarduerak egitean gutxien inplikatzaren diren irakasleentzat, gai horiei buruz duten interesa sustatzeko. Bilera horiek eztabaida forotzat erabiliko dira, gauzaturiko esperientziak eta Ingurugiro Heziketaren bilakaera aztertzeko.

Jarduketa horiek ezezik, Erabilera Egitamu honen Programaren barruko beste zenbait jarduketa ere garatuko dira, baldin eta Programa honetara aplikatzeko modukoak badira. Besteak beste, interesgarritzat jotzen dira Informazio eta Zabalakunde Programan jasotako jarduketa hauexek:

- interpretazio eta dinamizazio zentroa,
- norberak gidaturiko ibilbideak,
- ingurugiroari buruzko lehiaketak,
- Urdaibairi buruzko gaikako gidaliburuak,
- ikus-entzunezkoak.

“Bigarren fasean” gainerako jarduerak garatuko dira, Programaren Koordinazio Unitateak eta erakunde eskudunek aurreko jarduketak ebaluatu ondoren; gainera, mantendu egingo dira oinarritzko Programaren garapenerako ezinbestekotzat jotzen diren jarduerak, aurreko fasean jardunean jarri direnak.

Interes orokorreko gaiei buruzko kanpainak eta proiektuak nabarmenduko dira, Patronatuak garaturiko egitamuen jarduketei lotutakoak.

Heziketa Ikastaroak eta sakontze Jarduerak egingo dira, Ingurugiro Hezkuntzari, teknika berriei eta sektoreko beharrian berrietara egokituriko metodo didaktikoei buruz. Horren helburua irakasleei heziketa hobea ematea da, Ingurugiro Hezkuntza garatzeko, aurreko faseko oinarritzko prozesua burutu ondoren.

Fase honetako jarduketak egin baino lehen, jakina, lehenengo faseko jarduketak finkatu beharko dira. Hau da, jarduketok hezkuntza prozesuak izandako bilakaeraren ondorio izango dira.

Prozesu horretan, eskola dinamizaziora bideraturiko jarduketak sakonago aztertuko dira (jarduketok azaletik jorratu dira lehenengo fasean): eskola elkartrukeak eta lankidetzak kanpainak. Halaber, bolondresak erakartzeko kanpainak, naturalista gazteen taldeak eta guraso nahiz ikasleen arteko egonaldi mistoak (baserri-eskoletan) sustatuko dira.

Era berean, bigarren fase honetan material didaktiko konplexuagoa landuko da, lurraldearen ikuspegi orokorragoa izateko: Bagoi Berdea.

Naturaren Ikasgela sortzeko beharrian ebaluatuko da; ikasgela hori beharrezkoa izanez gero, berori jardunean jartzeko modua aztertuko da.

Proposatutako jarduketetatik batzuk fase bietan egin beharko dira, esate baterako, Urteroko Jabetze Kanpainak, Urdaibaiko elementu enblematikoei buruzkoak.

7.7. Ebaluazio sistemak

Ikastetxeetako Ingurugiro Heziketarako Programan deskribaturiko jarduketak ebaluatzeko lerro orokortzat, programaren disziplinarreko izaera errespetatzen duten jarduketak proposatzen dira. Ebaluazioa faktore zehaztailea izango da, Programan proposaturiko jarduketaren eraginkortasuna zehaztuko baitigu.

Deskribaturiko ekipamendu eta jarduketei dagokienez, ondoko prozedurak proposatzen dira ebaluaziorako:

- Koordinazio Unitateak egindako lana:

Unitatearen izaera teknikoak autoebaluaziorako gaitasuna bermatu beharko du. Lan horri laguntzeko sistematzat, postontzi edo lerro ireki bat sortzea proposatzen da, egin nahi diren iradokizun guztiak jasotzeko; horrela, irakasleek talde horrek eskainitako zerbitzuak baloratu ahal izango dituzte. Balorazio horiek eta modu esperimentalean egin nahi diren gainerako balorazio guztiak, berriz, jarduketaren memoria batean jaso beharko dira, Urdaibaien hezkuntza arloan egindako jardueren buruzko memoria batean. Era berean, hauexek eskatu ahal izango zaie euren jarduerari Urdaibaiko Biosfera Erreserban egiten duten Ingurugiro Heziketako ekipamenduei (Baserri-eskolak, Natura Gidak, Itsa-

soaren Ikasgela, etab.): Ingurugiro Heziketako jarduerak egiten dituzten taldeei buruzko txostenak emateko, koordinazio taldeari.

- Hezkuntzaren arloko jarrera eta ezagupenei buruzko ikerketa soziologikoak:

Lehen ere esan dugu oso garrantzitsua dela ikerketa soziologikoak egitea Erabilera Egitamuaaren orokortasuna ebaluatzeko. Gainera, komenigarria da alderdi soziologikoa lantzea Biosfera Erreserbaren hezkuntza arloan; horretarako, aldizkako txostenak egingo dira, ingurugiro gaiei dagokienez Urdaibaien dauden jarrera eta ezagupenei buruz. Horrela, programa honetan proposaturiko faseetariko bakoitza bukatuikoan, informazio osoa eduki ahal izango da Ingurugiro Heziketako prozesuaren egoerari buruz, Urdaibaiko Biosfera Erreserban; gainera, zehatzago landu beharreko eduki eta jarrerak ezarri ahal izango dira.

Programa honetan zehazturiko jarduketei dagokienez, ebaluazio sistema bi proposatzen ditugu:

- Galdeketa:

Sistema hau ondokoak bezalako jarduketetan aplikatzeko da batez ere: ibilbideak, unitate didaktikoak eta eskola elkartrukeak. Galdeketa horiek programa honen ondorioz prestatzen diren material guztietan sartu beharko dira; gainera, maila edo taldearen beharrezanetara egokituko dira, eta irakasleek nahiz ikasleek bete beharko dituzte.

- Partehartze indizeak:

Partehartzea erraz ebaluatzeko moduko elementua da, eta hezkuntza sektorearen puntu interesgarriak ezagutzeko aukera ematen du, bai ikastetxean bertan egindako jarduketei eta bai, bertatik kanpo eginda ere, ikastetxeetako lana osatzeko egindako jarduketei dagokienez.

8. Ikerketa eta Lankidetz Zientifikorako Programa

8.1. Sarrera

Biosfera Erreserbak baliabide pribilegiatuak dira, eta horietan ikerketak lehentasunezko zeregina izan behar du. Izan ere, behar bezala babesturiko lekuak dira eta bertan oinarritzko ikerketako programak edo ikerketa aplikatuko programak (iraupen luzekoak) aplika daitezke. Programa horien helburua ingurune baliabideen erabilera eutsigarriaren oinarri zientifikoak sortzea da, eta bertako ekosistema guztiak (nolanahiko ustiapen maila dutela ere) kontserbatu eta suspertzea.

Halaber, ikerketa programek Biosfera Erreserbaren nahiz bertako inguruaren egoera sozioekonomikoen eta lurralde kudeaketaren garapena bultzatu behar dute, eutsigarritasun irizpideetan oinarrituta, eta Biosfera Erreserbetarako Sevillako estrategiak (1995) ezarritako helburu orokorraren arabera: “gizakien eta biosferaren arteko elkarrekintzei buruzko ezagupenak zabaltzea”.

Egindako lan multzo handiak frogatzen duenez, Urdaibaiko Biosfera Erreserban ikerketa jarduera ugari egin da. Unibertsitate eta Administrazioek ikerketa lanak egin dituzte, lurraldearen alderdi batzuei buruz; hala ere, ikerketa horiek ez dute erantzun egokirik izan Urdaibaiko biztanleen aldetik. Urdaibaian egindako ikerketen egoerari buruzko diagnostikoan, zenbait arrazoi ematen ziren hori azaltzeko.

Programa honen bidez, ez da ikerketa zientifikoko egitamu egituraturik zehaztu nahi izan, horren esangurarik hertsienean; marko egokia sortu nahi izan da ikerketa lanak garatzeko, modu integratuan garatu ere, Egitemu Gidari hau osatzen duen programa multzoaren barruan; horretarako, baliabideak eman dira ikertzaileentzat, eta Patronatuaren beharrezan zehaztu dira, kudeaketa lanak egiteko behar dituen emaitza erabilgarriei dagokienez, EKEGak eta UNESCOren MaB Gizakia eta Biosfera) programak ezarritako helburuen arabera.

Ikerketa zentro eta ekipamendu garrantzitsuak egotea (estu lotuta daude Urdaibaiko Biosfera Erreserban egiten den jarduerari) bermea izango da Programa honen

aplikaziorako, baldin eta koordinazio eta lankidetzaren mekanismoak ezartzen badira, eta alderdi bien helburuak kateatzea lortuz gero.

Horri dagokionez, Programan ikerketa larri oso orokorrak proposatzen dira; larri horiek, hala ere, Patronatuak kudeaketa lanak burutzeko izan ditzakeen beharri-zanak isladatzen dituzte. Horren bitartez, ordea, ez dira unibertsitateek, ikerketa zentroek edota lanbide zentroek Urdaibaian egin nahi dituzten ikerketak oztopatu nahi: beharri-zanen katalogo bat egin nahi da Patronaturako, ikerketen emaitzen bidez betetzeko moduko beharri-zanen “katalogoa”.

8.2. Helburu zehatzak

1. Ikerketa proiektu koordinatuak sustatzea, kontserbazioaren zientziari eta ekologiari buruz, Biosfera Erreserbaren barruan eta, oro har, kultur nahiz natur mailako baliabide guztien barruan.
2. Ekosistemen erabilera eutsigarriaren eta epe luzerako kontserbazioaren oinarriak sortzen laguntzea; halaber, garapen eutsigarriaren printzipio teorikoak modu praktikoan eta egoera zehatzetan garatzea.
3. Tresna egonkorrak ezartzea, Biosfera Erreserbaren ikertzaile, aditu, erakunde eta kudeatzaileen arteko lankidetzaren eta kooperazio zientifikorako; aldi berean, tresna horiek sektore interesatu guztiei zabaltzea eta hedatzeko bideak sortzea.
4. Ekosistemen ibilera erakustea eta ingurune aldaketa nahiz joerak aurreikus-terko aukera ematen duten ereduak prestatzea; horretarako, ikerketa konparaturako eremua sortu beharko da, eskualdean nahiz nazioartean.
5. Administrazio eta erakundeetatik haxe lortzea: Urdaibaiko Biosfera Erreserba lehentasunezko ikerketa eremutzat aurkeztea, proiektu edota azpiegiturarako egiten dituzten deialdietan.
6. Problema ebaztea eta Biosfera Erreserba erabili nahiz kudeatzeko modu berriak bilatzea.
7. Urdaibaiko Biosfera Erreserbako aniztasun biologikoaren, eutsigarritasunaren eta biztanleen kalitatearen behaketa iraunkorra sustatzea.
8. Planeamenduaren aplikazioa ikertzea, lurraldea nahiz bertako ingurune baliabideak antolatu eta kudeatzeari dagokionez.
9. Estuarioen ikerketan, alde heze gisa, espezializaturiko Biosfera Erreserbatzat itxuratzea; hori izango da Urdaibairen ezaugarrietariko bat.

10. Baldintza egokiak ezartzea, Biosfera Erreserba eremu pribilegiatutzat itxuratzeko; bertan adituak trebatuko dira, baliabide naturalen eutsigarritasunean eta eskualdearen garapenean.
11. Arro horretako ingurugiro alderdiei buruzko ezagupena hobetzen laguntzea; alderdiok biztanleen ingurugiro informazio eta heziketarako erabili ahal izango dira. Horrela, oinarri zientifikoak eskainiko zaizkio Erabilera Egitamu honen bidez hasitako ingurugiro heziketako prozesuari.
12. Hemendik 10 urtera, egindako aurrerapenak baloratzeko gaitasuna izatea; halaber, ikusitako beharrianen arabera, beharrezko lehentasunak eta ekin-tzabideak ezartzea: Urdaibaiko Biosfera Erreserbako ikerketari, lankidetzazientifikoari eta adituen trebakuntzari buruzko programa egituratua zehaztea.

8.3. Gai nagusiak

Programa honetan adierazitako helburu zehatzak oinarri izanik, uste dugu komenigarria dela gai nagusi batzuk ezartzea lanerako, baina gehiegi zehaztu barik. Gai horiek kontutan izan beharko dira Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Ikerketa eta Lankidetzazientifikorako Programa honetan.

Gai horien garapena, guk proposaturiko jarduketaren deskripzioaren arabera, Patronatuaren (“Urdaibai” Ikerketa eta Garapen Eutsigarrirako Unitatearen laguntzarekin) eta Unibertsitatearen arteko lankidetzan euskarritzen da; dena den, lehenengo eta behin, kasu bakoitzean inplikaturiko erakundeak kontsultatu eta horien lankidetzaz lortu beharko da. Hala ere, eta sarreran esan dugunez, gai orokor horiek ezartzearen helburua hau da: Patronatua aholkatzea bere kudeaketan, ikertzaileen proposamenekin gatazkarik izan gabe.

Zehazturiko gai orokorrak hiru taldetan bil daitezke: “Ekologi, paisaje eta kultur sistemen azterketa”, “Eutsigarritasuna eta Garapena” eta “Kudeaketa eta Administrazioa”.

Horiek guztiak lotura handia dute elkarrekin, eta ikerketa gai orokor bakoitzak gainerakoak baldintzatzen ditu. Hain zuzen ere, horiek guztiak ondo elkartuta, beharrezko ezagupenak lortuko ditugu Biosfera Erreserba ondo interpretatzeko eta bertako baliabideen erabilera eutsigarria gauzatzeko.

- A Taldea. Ekologi, paisaje eta kultur sistemen azterketa:
 - Biologi eta paisaje aniztasunaren eta berori ulertzeko eraren ikerketa eta ebaluazioa.
 - Bertako ekosistema guztien ibileraren modelizazioa.
 - Ondare historiko-artistikoa eta lurraldearen erabilera.

- B Taldea. Eutsigarritasuna eta Garapena:
 - Eutsigarritasunaren adierazkariak.
 - Lurralde kudeaketaren ereduak.
 - Inguruaren aldaketak. Kutsadura, ebaluazioa eta ondoreak. Zaharberrikuntza.
 - Biosfera Erreserban garapen eutsigarriko eredu bat ezartzeko formulak.
 - Tokiko biztanleen bizitza kalitatearen bilakaera.
- C Taldea. Kudeaketa eta Administrazioa:
 - Lurralde Ekintzako Egitamuen ezarketa, jarraipena eta ebaluazioa.
 - Hirigintza planeamenduen integrazioa, Biosfera Erreserbaren kudeaketan.
 - Gizarte dinamizazioa (ingurugiro hezkuntza nabarmenduko da).
 - Ingurugiroari buruzko gizarte gatazken konponketa.

8.3.1. Garatu beharreko arlo nagusiak eta lortu nahi diren helburuak

Gai orokor horien garapena faktore ugariaren menpe dago; horien artean, aurrekontuei buruzko xedapenak ezezik, ondokoak ere sartzen dira: Biosfera Erreserba kudeatu beharra, ikerketen emaitzak, alderdi interesatuen koordinazio nahiz elkar ulertzearen emaitzak, nazioarteko joerak, etab.

Ondoren, talde orokor bakoitzaren barruan garatu beharreko arlo nagusietariko batzuk deskribatzen dira, baita lortu nahi diren emaitzak ere, Erabili eta Kudeatzeari buruzko Egitamu Gidari osoan zehar egindako azterketan ezarritakoaren arabera. Hemen ez dira egon dauden aukera guztiak aipatuko: Erabili eta Kudeatzeari buruzko oraingo Egitamu Gidaria indarrean dagoen artean kontutan har daitezkeenak bakarrik aipatuko dira.

A Taldea. Ekologi, paisaje eta kultur sistemen azterketa:

- A.1. Ekosistema bereziak: itsasbazterra, Estuarioa eta sistema karstikoa.
 - Mugatu eta ikertzea, sailkatu eta baloratzea, eskualde mailako testuinguru biogeografikoan.
 - Unitate biotiko nagusiak espazioan eta denboran identifikatzea, baita jarioak eta ibilerarako oinarrizko loturak ere (funtzionamendu ereduak).
 - Erabili eta kudeatzeari dagokionez dauden aukerak ezartzea, euren egoera naturalean mantentzea bermatzeko.
 - Prozesu ekologikoen eta ziklo biogeokimikoen jarraipena egitea. Inguru naturalaren alderdi guztien jarraipena egitea, berezko aldaketak nahiz giza jardueren ondoriozkoak aurkitzeko.
- A.2. Aniztasun biologikoa, Ekotonoak eta eremu naturalak mantentzea (haltzadiak, dunak, hariztiak, landak, hesiak, mantuak eta orlak, besteak beste).

- Basoko bizitza duten komunitateak, espezie biologiko bereziak eta euren garapen ekologikoaren etapak.
 - Ingurunearen kutsadura eta toxikologia. Ingurugiro estresaren mailak. Kutsagarrien eta ingurugiro arriskua duten lekuen inbentarioa.
 - Bertan nahiz euren ertzetan erabili eta kudeatzeko irizpideak. Arriskuak (endemismoak, galtzeko arriskuan dauden espezieak edo espezie urrituak) eta autorregulaziorako beharrizanak (elikagaien zikloak, ziklo hidrologikoak, lurzorua eratzeko zikloak, etab.), baita negualdia eta hegazti-fauna migratzailea egotea errazten duten neurriak ere.
 - Prozesu ekologikoen eta ziklo biogeokimikoen jarraipena.
 - Giza jardueren eragina ondare naturalean.
- A.3. Arro hidrografikoaren sistema hidrogeologikoak, alubial-estuario sisteman eta sistema karstikoan batez ere.
- Ziklo hidrogeologikoak. Egoera, arriskuak eta ahultasunak. Urdunen erreka eta uren kalitatea. Drenatze sarearen ibilera.
 - Erabilera bateragarriak eta landare estalduraren erabilera egokia. Oreka geomorfologikoak arroko goi eta behe aldean artean.
 - Abelur eta baso jarduerak, eta lurzoru emankorraren kontserbazioa.
 - Kudeatu eta planifikatzeko gidalerroak. Lurzorua erabiltzeko gidalerroak. Higadura arriskua eta urdunen erreka dituzten eremuen zaharberrikuntza eta babesa.
- A.4. Paisaje multzoak.
- Giza jardueraren identifikazioa, balorazioa eta bilakaera.
 - Paisaje kanonikoen bilakaera; biztanleek bilakaera hori ikusteko era, lurraldearen erabileren aldaketak bertan eragiten dituen aldaketei dagokienez.
- A.5. Interes historiko-artistikoa eta kulturala duten ondasunak.
- Ondasunen katalogoa (aztarnategi arkeologikoak eta paleontologikoak, baselizen arkitektura tradizionala, oinetxeak, zubiak, errotak eta alde horretako historiaren nahiz etnografiaren elementu adierazgarriak, baita herri zein toki mailako kulturaren beste ezaugarri batzuk ere).
 - Ikerketa etnografikoa, ingurua erabiltzeko jarduera tradizionalei buruz.
 - Tokiko toponimia eta landa-hitzen hiztegia.
 - Babesa, sendoketa, zaintza eta zabalkundea.

B Taldea. Eutsigarritasuna eta Garapena:

- B.1. Lurraldeko ekologi, ekonomi eta gizarte prozesuen eutsigarritasun adierazkarien prestakuntza.

- Lurraldeko baliabideek duten egoeraren identifikazioa eta ebaluazioa. Lurraldea erabili eta kudeatzeko ereduen eutsigarritasunaren balorazioa.
 - Tokiko biztanleen iritziaren jarraipena.
- B.2. Garapen sozioekonomikoaren eta kontserbazio printzipioekin bateragarria den bitzta kalitatearen sustapena.
- Lurzoruaren nekazaritza eta abeltzaintzazko etekinak. Oraingo lehia-kortasuna.
 - Baserrietako biztanleen partehartzea Biosfera Erreserbaren ekogarapean.
 - Jarduketak egitea garapen sozioekonomikoa eta bitzta kalitatea sustatzeko tokiko biztanleen artean (abelur nahiz baso hobekuntzak, ingurugiroaren zaharberrikuntza, hondakinen kudeaketa, etab.).
 - Ingurugiroaren narriadura maila aztertzea eta neurri praktikoak hartzea bera zaharberritzeko.
 - Ikerketa aplikatua egitea, bazterreko lurren erabilera eutsigarriaren garapena bultzatzeko (ereduzko esperientzia, intsinis pinuarekin birbasoturiko arroak kudeatzeko).
 - Bateratasunerako, Garapen Sozioekonomikorako eta Jarraipenerako programak egitea. Enplegua sustatzea. Baliabideen kontserbazioarekiko garapen bateragarria bultzatzen duten enpresa proiektuak ikertu, ebaluatu eta laguntzea, baita tokiko produktuen produkzioa eta merkaturatzea bultzatzen duten proiektuak ere.
- B.3. Turismo berde eta kulturalaren sustapena.
- Planifikazioa, garapena eta probetxamendua. Eraginen balorazioa. Erabilera arauak eta kudeaketa.
 - Urdaibaiko Biosfera Erreserbak turistak hartzeko duen gaitasuna iker-tzea.
 - Turismo berde eta kulturala sustatzeko programak.
 - Prototipo arkitektoniko eta teknikoak, eraikuntzarako eta herrilantetarako.
 - Metodologiak eta adierazkariak, Biosfera erreserbaren gizarte eraginaren jarraipena egin ahal izateko, eta ondore kaltegarriei aurre egiteko erremintak zehazteko.

C Taldea. Kudeaketa eta Administrazioa:

- C.1. Biosfera Erreserbaren kudeaketa lanen planifikazioa, jarraipena eta ebaluazioa.

- Urdaibaiko planeamendu orokorrak (EKEG) sektoreen planeamendua-rekin eta tokiko hirigintza tresnekin duen integrazioaren eta bateragarri-tasunaren azterketa.
 - Lurralde Ekintza Egitamuak, Erabilera Egitamuak eta Erabili eta Kude-atzeari buruzko Egitamu Gidariaren gainerako baliabideak garatzeko behar diren oinarri tekniko eta zientifikoak sakontzea.
 - 5/1989 Legearen (Urdaibaiko Biosfera Erreserba Babestu eta Antolat-zeari buruzkoa) eta berori zabaldu nahiz garatzeko prozesuaren azter-keta juridikoa.
 - Ikerketarako tresna berriak eta disziplinar-tekoak prestatzea (Biosfera Erreserbetarako); horien artean, eredu malguko sistemak sartuko dira, gizarte, ekonomi eta ekologi mailako datuak integratzeko.
 - Biosfera Erreserbaren kudeaketa helburuen jarraipena; helburuon bete-arazketa baloratuko da, tokiko biztanleen inplikazioa batez ere.
 - Ebaluazio Egitamuak eta diagnostikorako Programak edo “ekoaudito-retzak”; azterketa metodologia komunak ezarriko dira, gainerako Bios-fera Erreserbekin.
- C.2. Gatazken bitartekaritza prozesuak lurralde baten ingurugiro kudeaketara aplikatzea.
- Aktoreen interesen azterketa eta balorazioa.
 - Alderdiek kudeaketan duten partehartzea eta interpretazioa. Kontsulta-rako ereduak.
 - Erabakiak hartzeko ereduak. Lehentasunak adostasunez zehaztea.
- C.3. Ingurugiro kontzientziazio, informazio eta heziketa programak ezartzea (garatzea).
- Jokabide zentzudunak (ekologiaren aldetik) bultzatzea biztanleen arte-an: ingurugiro hezkuntza.
 - Biztanleek ingurugiro baloreak interpretatu eta eurenganatztea.
 - Ingurugiro curriculum inplementatzea hezkuntza sisteman. Berori ondo ezartzeko prozedurak eta beharrianak.

8.4. Hasi eta garatu beharreko lanak

Biosfera Erreserbako gizarte agenteek eta, oro har, biztanle guztiek adierazitako beharrianetariko bat hauxe da: ikerketak lurraldeko arazoetara aplikatu ahal izatea. Hori dela eta, egin daitezkeen ikerketetan lortu beharreko emaitzetariko batzuk sar-tzen dira hemen, lurraldearen kudeaketara aplikatu ahal izateko.

Katalogo zabal honetan ez dira ikerketetan lortu ahal diren emaitza guztiak jaso nahi. Halaber, Erabilera Egitamua garatzen den bitartean ezin izango dira ikerketa horiek guztiak egin, ezta adierazitako emaitza guztiak lortu ere. Hemen orientazio bat baino ez dugu eskaini nahi, Erabili eta Kudeatzeari buruzko Egitamu Gidariak eta UNESCOren M.a.B. Programak ezarritako helburuak lortzeko egin beharreko lanei buruz.

A Taldea. Ekologi, paisaje eta kultur sistemen azterketa:

- a) Oraingo ezagupenak bildu eta sistematizatzea.
- b) Biosfera Erreserbako fauna, landaretza eta landare unitateei buruzko inbentario kartografikoa (funtsezkoa da kudeaketa erabakiak oinarri zientifiko batekin hartzeko). Habitatak babestea, landare eta zoologi mailako ondarea kontserbatu eta suspertzea (*Armeria euskadiensis*, espatula, europako bisoia, igel hankaluzea, etab.).
- c) Biosfera Erreserbako ekosistemen ibilerari buruzko eredia gertutzea (giro morfodinamikoak, konpartimentuak eta jarioak identifikatzea); enfasi berezia egingo da Estuarioaren eta berorren alde neritikoaren modelizazioan, baita ibaietako eta lurpeko uren azterketa integralean ere. Estuarioko jalkinen mugimenduen ikerketa eta jarraipena egingo da (mugimendu horiek karrakaketen ondoriozkoak dira, baita arroaren nahiz itsasoaren ekarpenen ondoriozkoak ere).
- d) Ekosistema naturalen zuzperketa, euren oraingo egoera hobetzeko eta ekosistema baliotsu eta urrituenak hedatzeko, babes pribilegiatuko aldeetan: dunak, artadia, hariztia, etab. Zuzperketa egitamu bat ezartzea. Haztegi bat sortu eta mantentzea, zaharberrikuntza horiek egiteko, Urdaibaiko espezieekin.
- e) Gidaliburu metodologikoak prestatzea, ikerketa prozesuaren ohiko tresnatzat (laginketa prozesu, diseinu eta tekniken deskripzioa, laginen zaintza nahiz azterketa eta, behar izanez gero, arriskuen azterketa; hori guztia egiteko, kontutan izan beharko dira ikerketa prozesuaren helburuak eta horiek, aldi berean, lortu beharreko kalitate irizpideak eragingo dituzte).
- f) Estuarioari lehentasuna ematea ekosistema berezizat.
 - Oinarriak ezartzea eredu bat prestatzeko Estuarioaren ibilerarako; eredu horrek bertako hutsune zientifikoak eta egin beharreko ikerketak adieraziko ditu. Konpartimentuen eta jarioen identifikazioa.
 - Biosfera Erreserbaren kanpoko aldean (itsasoaren eragina dauka) ikerketak egitea: alde handiz, berori da gutxien ikertu den alderdia.
 - Estuarioko kutsaduraren jarraipen programa; horrela, zehatz ezagutuko dugu substantzia kutsagarriek lehentasunezko sistema horretan duten eragina. Helburuak prestatzea eta metodologia aukeratzea.

- g) Beste jarduketa batzuk ibaietako uretarako:
 - Biosfera Erreserbako ibaietako nahiz lurpeko uren sistemaren ikerketa integratua. Urdunen erabilera.
 - Kutsaduraren jarraipen programa; bioentseiuak eta toxikotasun testak egingo dira isurketei buruz.
 - h) Lurzoruen ikerketa: tipologia, prozesu edafikoak eta degradazioa. Higadura prozesuak eta lurzoruen emankortasun galtzeak zaintzea. Kutsaturiko lurzoruak zuspertzea.
 - i) Palaxuak, orlak eta mantuak ikertu eta baloratzea, bai fenomeno ekotonikotzat eta bai biologi, paisaje eta kultur mailako baliabidetzat.
 - j) Lagako dunei buruzko ikerketa berezia. Kontserbazioa eta zuspertzea.
 - k) Paisaje multzoen balorazioa eta bilakaera, euren arteko loturak eta erregulazio arauak.
 - Biosfera Erreserbako paisaje unitateen arteko barne-barneko loturen azterketa (dinamika interaktiboak). Erabilera eta kudeaketa arauak.
 - Biztanleriaren pertzepziozko paisajearen azterketa.
 - l) Urdaibaiko baliabide historiko-artistikoen inbentarioa prestatzea.
 - m) Biosfera Erreserbaren azterlana, katalogatu bako aztarnategiak aurkitzeko.
 - n) Oraingo aztarnategien baliabide arkeologikoak ezagutzea.
 - o) Irizpideak prestatzea zenbait ikerketa egiteko haitzuloetako nahiz kanpoko aztarnategietan, lurren enkaitzea behar duten aztarnategietan.
 - p) Ondare historiko-artistikoa zaharberritu, kontserbatu eta babesteko irizpideak.
 - q) Urdaibaiko natur eta kultur ondarearen hiztegi etimologikoa.
 - r) Urdaibaiko mikroklimaren azterketa.
- B Taldea. Eutsigarritasuna eta Garapena:*
- a) Biosfera Erreserbaren lurraldeko eutsigarritasun adierazkariak zehaztea (baita metodologia bat ere, horien balorazio, ebaluazio eta jarraipenerako), Urdaibaiko prozesu ekologiko, ekonomiko eta soziokulturaletan oinarrituta.
 - b) Beste herrialde, eskualde edo estatu batzuek harturiko neurrien inbentarioa egitea, horien aldi bereko transferentzia eta konparazio sistematikoa ahalbidetzeko

- c) Alde hezeen inguruan egiten diren jarduera antropikoen ikerketa. Kudeaketa eta jarraipen ereduak. Faduran orain dauden erabileren eusteko gaitasuna (itsaski harrapaketa, arrantza, uretako kirolak, akuikultura, etab.).
- d) Landare aloktonoek Biosfera Erreserbaren landaretzan duten eragina ikeretzea. Landare horien erabilera erregulatzea lorazaintzan (Baccharis, Cortaderia, Robinia, etab.).
- e) Nekazaritza, abeltzaintza eta baso ustiapenen edota horiek burutzeko ingurugiro egoera berezien eragina (inguruan, kulturen eta sozioekonomian). Kaltegarriko lurraldearen biostasiaren eragina (ondore bio-geo-edafikoak), base-errietako kulturen, benetako errentagarritasunean, uren kalitatean...
 - Neurri esperimentalak Biosfera Erreserbako higaduraren egoerari buruz. Higadura mailak eta ukituriko aldeetako substratuaren urteko galerak.
 - Biosfera Erreserba Erreduzko Arrotzat ezartzea, substratu galerak edota berorren biostasiak jasandako kalteak jagozteko; halaber, kautela nahiz babes neurriak ezartzea, EAE osora estrapolatzeko modukoak.
 - Basoan egindako perturbazio larriek (suteak eta basoko praktika modernoak) eragindako kalteen ikerketa.
 - Habitata hondatzeari eta aniztasun biologikoa nahiz paisaje naturala aldatzeari (nekazaritzako nahiz basoko ustiapenen ondorioz) loturiko eragin naturalistikoaren ebaluazio zientifikoak.
 - Kudeaketak (batez ere, artadi kantauriarretan izandako eskuhartzea eta birbasoketetan egindako lurzoruen erabilera) basoetan dituen ondoreak.
- f) Kutsaduraren Jarraipen proiektu bat prestatzea. Garantzi berezia emango zaie ibaietako nahiz lurpeko urei eta estuarioari. Aurkituriko kutsagarriek Biosfera Erreserbako ekosistemetan eta bertako osagaietan dituzten ondore biologikoak ezagutzeko. Jagotze egitamuak (adibidez, SEIKA programa, edota isurketak modu automatikoan kontrolatzea sateliteen bidez).
- g) Abeltzaintza, baso eta hirietako hondakinen balorazioa eta karakterizazioa Urdaibaien. Proposamenak egitea horiek tratatu eta berriro erabiltzeko nekazaritzako jardueretan.
- h) Biosfera Erreserban turismo erabilerak sortutako ingurune eraginaren ebaluazioa. Halaber, Egitamu baten diagnostikoa eta garapena; horrela, beharrezko baldintzak izango dira balizko "Etiketa Ekoturistikoa" lortzeko.
- i) Etxebizitza pribatuak eraikitzean gomendatu beharreko prototipo arkitektonikoak eta teknikoak; ahalegina egingo da hutsalergia arkitektonikoa saihesteko eta paisajeen ezaugarri tradizionalak zaintzeko.
- j) Biosfera Erreserbak emandako produktu naturalen eta zerbitzuen ahalmenaren ebaluazioa; izan ere, horiek diru sarrera finko eta egonkorrak sortu ahal

dituzte tokiko herrietarako. Urdaibaiko produktuaren etiketa ezartzea maila desberdinetan (eskulangintza, ezitia, gazta, piperra, txakolina, okela, berdurak, barazkiak eta fruta).

- k) Lurraldea antolatzeko tresnen aplikazio mailaren ikerketa, baita baliabide naturalen eta euron eraginkortasunaren ikerketa ere.

C Taldea. Kudeaketa eta Administrazioa:

- a) Planeamenduaren eta berorren aplikazioaren ebaluazioa. Lurralde Ekintza Egitamuen eta Erabilera Egitamuen inplementazio mailaren azterketa, baita Erabili eta Kudeatzeari buruzko Egitamu Gidarian sarturiko gainerako tresna nahiz neurrien inplementazio mailarena ere.
- b) Ebaluazio Egitamuk eta diagnostikorako Programak edo “ekoauditoretzak”; azterketa metodologia komunak ezarriko dira, gainerako Biosfera Erreserbekin.
- c) Kudeaketaren ezaugarri nagusiei eta nahasitako alderdien partehartze sistemei buruzko gidalerroak: alderdien interesak zaintzea eta modu bat aztertzea interes horiek kontutan hartzeko Biosfera Erreserbaren planeamenduan eta kudeaketan.
- d) Tokiko kontsulten egiturarako ereduak, Erabilera Egitamu honetako programa guztietarako. Lehentasunak adostasunez zehazteko prozedura.
- e) Biosfera Erreserbaren Jarraipen Programa Integralaren helburuak zehaztea; berori garatuko duten programa guztiak ere zehaztea, baita erabiliko den metodologia ere. Programa diseinatzea, metodo normalizatu, interkalibratu, konparagarri eta erabilgarrietan oinarrituz (modelizazio sistemen eta gidaliburu metodologikoen prestakuntzaren gidalerroak).
- f) Ingurugiro kontzientziazio, informazio eta heziketa programek biztanleen artean duten ezarketa (garapen) mailaren interpretazioa, azterketa eta balorazioa. Erabilera Egitamu honen metodoek lurraldearen kudeaketan izango duten aplikazioa ebaluatzeko sistemak.
- g) Produkzio ereduaren eutsigarritasunari loturiko ikerketak; halaber, kudeaketa eta aplikazio proposamenen bidez zehaztu beharko dira; kontzeptu erabilgarriak eskaini beharko dituzte EKEGaren barruko Programa Integratuen prestakuntza eta aplikaziorako (itsaski harrapaketak, ehiza, lurzoruaren erabilera baso ustiapenetan eta isurketak Biosfera Erreserban).

Lan zientifiko horiek eta kudeatzeko proposamena inkardintzeko modua, gure ustez, Biosfera Erreserbako Jarduera Sozioekonomikoak Bateratu eta Garatzeko Programan adierazita egongo da.

- h) Biosfera Erreserben kudeatzaileak XXI. mendean trebatzeko beharrianak zehaztea, eta gaikuntzarako programa ereduak prestatzea ondokoak bezalako gaietan: egoera soziokulturalen azterketa, gatazkak konpontzeko moduak eta baliabideak lankidetzan administratzeko erak, ekosistemaren edo paisajearen testuinguruan.
- i) Bertakoen inplikazio maila aztertzea, ondoko arloetan: ingurugiroa ezagutzea, erantzukizunak norbereganatzea eta, azkenik, gizarte agenteek (kudeaketan erantzukizunen bat dutenak batez ere) beharrianak nahiz erantzuteko metodo edo prozedurak aurkitzea.

8.5. Jarduketan katalogoa

- Dinamizazioa eta koordinazioa
 - 1. jarduketa: “Urdaibai” Ikerketa eta Garapen Eutsigarrirako unitatea.
 - 2. jarduketa: lankidetzaren hitzarmena.
- Ikerketa eta kudeaketa
 - 3. jarduketa: Urdaibai MaB Programaren egoitza izendatzea, Ingurugiro Hezkuntzaren ikerketarako.
 - 4. jarduketa: Biosfera Erreserben jarraipen programak.
 - 5. jarduketa: ikerketa lanak sustatzea.
 - 6. jarduketa: anaitzeak.
- Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Dokumentazio Zentroa
 - 7. jarduketa: datuak trukitzea naturgune babestuen nazioarteko egoitzetan.
 - 8. jarduketa: datuak erakartzea elkarteko datutegietatik.
- Gaurkotzea eta heziketa
 - 9. jarduketa: topaketak, mintegiak eta jardunaldiak antolatzea.
 - 10. jarduketa: Ikerketa eta Garapena Frogatzeko Eskuliburuak.
 - 11. jarduketa: Ingurugiro Hezkuntzaren eta Zientzien Europako Titulua sustatzea.

8.6. Jarduketan deskripzioa

“Urdaibai” Ikerketa eta Garapen Eutsigarrirako Unitatea sortzeak (unitate hori Patronatuaren antolaketa egituraren menpe eta Unibertsitatearekin zuzen lotuta dago) sustatu eta bideratu egingo ditu ondoren aipatzen diren jarduketak; gainera, koherentzia emango die jarduketoi. Beraren lana Biosfera Erreserbaren Zuzendaritzak

arautuko du. Unitate horren helburua hauxe da: Urdaibaiko lurraldearen ingurugirokudeaketa eutsigarrira bideraturiko ikerketa lerro edo proiektuak bultzatzea. Horretarako, ezinbestekoa da “Lankidetzaren hitzarmen” bat ezartzea, espazio horretan diharduten erakundeekin, edota jarduera zientifiko-teknikoari loturiko erakundeekin, lankidetzaren eta koordinazio politikaren bat garatzeko.

Ikerketa eta Lankidetzaren Zientifikorako Programa honekin lotu nahi den helburuetariko bat Urdaibaiko Biosfera Erreserba erreferentziaren gune bihurtzea da, Ingurugiro Hezkuntzari buruzko ikerketa garatzeko, UNESCOk Biosfera Erreserba izendaturiko lurraldeetan batez ere. Horretarako, garrantzitsua da Urdaibai “Ingurugiro Hezkuntzako MaB Programaren Egoitza izatea”; halaber, partehartze aktiboa izan beharko du “Biosfera Erreserben Jarraipen Programetan” (Espainiako Sarearen eremuan sortutako programak).

“Urdaibai” Ikerketa eta Garapen Eutsigarrirako Unitateak duen lan dinamizatzaileraren eta eremu babestuetako beste erakunde nahiz sareekin dituen harremanen helburu nagusienetarikoa “ikerketa lanak sustatzea” da, natur eta gizarte zientzien beste alderdi batzuk jorratu ahal izateko eta, horrela, aztertutako gaiak dibertsifikatzeko. Ikerketa horietariko batzuk egiteko (Patronaturako interesgarrienak diren ikerketak egiteko batez ere), dirulaguntzak ezartzea proposatzen da; horrela, azterketak, ikerketetarako bekak, hitzarmenak eta “lankidetzaren akordioak” sustatuko dira beste ikerketa Zentro eta Unibertsitate batzuekin.

Jarduera hori aberasteko, “anaitzeak” egin daitezke. Horiek, zientziaren ezagupenen elkartrukea bultzatzeaz gain, lurraldean eragin zuzena duten gizarte agenteen arteko harremana eta komunikazioa ere bilatu beharko dute, ingurua erabiltzeko beste modu batzuk eskaintzeko.

Biosfera Erreserban lan egiten duten taldeen lana errazteko, Patronatuak parte hartu beharko du “datuak trukatzeko nazioarteko egoitzetan”; gainera, “Elkarteko datutegiak” erabili beharko ditu. Horrek guztiak aukera emango dio dinamismo handiagoa izateko beste ikertzaile batzuekin egindako ikerketa eta lankidetzaren lanetan.

Biosfera Erreserbaren helburuetariko bat —oso garrantzitsua da, gainera, Programa honen garapenerako— ikertzaileen prestakuntza da, eta esperientzien elkartrukea, lurraldea hobeto kudeatzeko. Helburu hori betetzeko, “topaketa, mintegi eta jardunaldiak” egin nahi dira, komunikazio, eztabaida eta erakustaldi forotzat; halaber, Urdaibaik “Ingurugiro Hezkuntzaren eta Zientzien Europako Titulazio” berrian parte hartzea ere lotu behar da. Esperientziak elkartrukatu eta heziketa prozesuak burutzeko, beste modu bat ere proposatzen da: “Ikerketa eta Garapena frogatzeko eskuliburuak” argitaratzea. Eskuliburu horiek aukera emango dute trebatzen ari diren ikertzaileek talde batzuek erabilitako ikerketa metodo eta protokoloak ezagutzeko.

8.7. Jarduketak ezartzeko gidalerroak

Egitamu honetako beste programa batzuekin gertatzen den bezala, programa hau ere bost urteko fase bitan garatuko da.

“Lehenengo fasean” beharrezko baliabideak garatuko dira Patronatuak ikerketa lanak sustatzeko eta etekin handiagoak lortzeko egindako lanen emaitzetatik.

Lehentasunezko neurritzat, uste dugu beharrezkoa dela “Urdaibai” Ikerketa eta Garapen Eutsigarrirako Unitatea zehazten hastea, jarduketa fitxa egokian deskribatzen den bezala. Aldi berean, eta Zentro hori sortzeari dagokionez, lehenengo lankidetzak akordioak ezarriko dira, lehen aipaturiko jarduketetariko batzuk gauzatzeko.

Programa jardunean jartzeko lehenengo etapa honetan, Urdaibaiko Biosfera Erreserbak erreferentzi gune izan behar du Ingurugiro Hezkuntzako ikerketa guztietan, bai Biosfera Erreserben eremuan eta bai gainerako eremu babestuetan egiten diren ikerketetan. Horretarako, Urdaibai Ingurugiro Heziketako MaB Programaren egoitza izatea proposatuko da, eta Ingurugiro Hezkuntzaren eta Zientzien Europako Lizentziaturan parte hartzea.

Fase honetan, gainera, lehendik egiten diren jarduera batzuk sustatu beharko dira, adibidez, ikerketa lanak eta bekak. Halaber, ikerketa hitzarmen eta akordioak ere sustatuko dira halako lanak egiten dituzten erakundeekin.

Azkenik, eta zientifiko nahiz adituen arteko informazio trukea bultzatzeko, baliabide batzuk erabiliko dira, esate baterako, zientzilarien arteko topaketak egingo dira (mintegiak, jardunaldiak...), une bakoitzean egokienak diren gaiei buruz.

“Bigarren fasean”, “Urdaibai” Ikerketa eta Garapen Eutsigarrirako Unitateak hasitako koordinazio nahiz dinamizazio lanak eta abar abian jarri ondoren, jarduketa berriak jorratzeko unea helduko da.

Unitateak, zenbait urte jardunean ibili eta gero, zeregin aktiboagoa izango du beste naturgune babestuekiko lankidetzak programetan, datuak elkartrukatzeko nazioarteko sareetan eta Elkarteko datutegien erabileran.

Bigarren fase honetan, gainera, enfasi berezia egin beharko da informazio trukeko (zientzilarien artekoa) deskribatu diren jarduketetan; izan ere, anaitzeak, topaketak eta eztabaida nahiz erakustaldi foro berriak sustatu beharko dira, baita lankidetzak akordio berriak ere.

Beste eremu babestu batzuekiko harremanak ez dira presaka ezarri behar; lehenengo, beste zenbait harreman sendotu beharko dira: Espainiako Biosfera Erreserbekin, “Paisajeak eta Bizimoduak Babestuz” egitasmoko espazioekin eta Argentinako “Camino del Gaucho” izenekoan dauden Erreserbekin. Nolanahi ere, ahalgin

berezia egingo da komunikazio eta kontaktuak izaten Euskal Herriko eremu babes-tuekin.

Azkenik, eta proposaturiko ekintzen osagarritzat, heziketa lanak bultzatuko dira beste jarduketa baten bidez: ikerketa eta garapena frogatzeko eskuliburuaren edizioaren bidez.

Baina multzo hori guztia ezarri ahal izateko, beharrezko aurrekontu guztiak eskaini beharko zaizkio Programari; aurrekontu horiek, kanpoko finantzaketa iturriek ekarritakoekin batera, aukera emango dute programa hau eta bertan jasotako jarduketak garatzeko. Horretarako, zuzendari-artatzaileak eta Urdaibaiko Patronatuak laguntzak bilatu, lankidetzak hitzarmenak proposatu eta akordioak lortuko dituzte, beharrezko fondoak segurtatu ahal izateko Programaren ibilera onerako.

Unitatearen arduradunek, bestalde, egindako jarduketaren memoria eta balorazioa aurkeztu beharko dute urtero. Gainera, balantze ekonomikoa eta hurrengo urterako lan egitamuaren ere aurkeztu beharko dute; egitamu horretan, kanpoko sarreraren aurreikuspena eta berezko beharrezkoak sartuko dira. Lan egitamu hori eta berorren aurrekontua Patronatuko urteko programan jasoko dira.

8.8. Ebaluazio sistemak

Halako ezaugarriak dituen programa baten ebaluazioak aztertu egin beharko du ea programaren bidez egindako jarduketek lagundu duten ala ez zehazturiko helburu zehatzak lortzen.

Programa ondo ala txarto dabilen jakiteko, kontutan izan beharko dugu ea benetan egituraturiko programarik lortu den, ikerketa, lankidetzak zientifiko eta adituen heziketarako, Urdaibaiko Biosfera Erreserban.

Erabilera Egiteamua bigarren zati honen sarreran esan dugunez, ebaluazio tresnarik egokiena (bai jarduketak eta bai agiri honetan finkaturiko ikerketa lerroen garapena baloratzeko) Patronatuaren eta Unibertsitatearen artean lorturiko lankidetzak maila izango da; lankidetzak hori ikerketa unitatearen eta garapen eutsigarriaren bidez bideratuko da.

Bestalde, ikerketa programaren lerroetariko bat programaren ebaluazioa da, eta horrek haxe dakar: ikerketa eta lankidetzak zientifikorako programaren garapena praktikan ebaluatzeko moduko proiektua izatea.

Ikerketa eta garapen eutsigarriarako Unitate teknikoak Programa honen ebaluaziorako egin ditzakeen lanak alde batera utzita, badira irizpide batzuk egindako lortuak ebaluatzeko erabil daitezkeenak:

- “Ikerketetarako bekak eta lankidetzak hitzarmen nahiz akordioak”: horiek lortzen laguntzen duen estamentu kopurua handitzeak eta horien garrantzi akademikoak aditzera emango dute mundu akademikoak Urdaibaiko Biosfera Erreserban ikerketak egiteko duen interesa.
- “Datuak elkartrukatzeko nazioarteko sareak”: Biosfera Erreserbak sare horietan parte hartzeak aditzera emango du Urdaibaik nazioartean duen erabilera maila eta garrantzia.
- “Bilera zientifikoak egitea”: partaide kopuruak eta horien jatorriak aukera emango dute Patronatuak zientzialarien eskura jarritako zerbitzuen erabilera maila ebaluatzeko.
- “Ekipamenduak ikerketak egiteko”: horien erabilera maila adierazkari garrantzitsua izango da, Biosfera Erreserban ikerketa ondo sustatzen den ala ez jakiteko.